



uk

61. zenbakia / 2004 maiatzak 16



FESTIMAD'04



PARQUE EL SOTO / MÓSTOLES / www.festimad.es

28
MAIATZAK

HEINEKEN ESKENATOKIA

BEN HARPER
& THE INNOCENT CRIMINALS

PATTI SMITH

VIOLADORES DEL VERSO

FUNERAL FOR A FRIEND

AKWID ★ LA FRES-K

SOL MUSICA ESKENATOKIA

JET ★ THE RASMUS

HOOBASTANK ★ ATOM RHUMBA

SOBRINUS ★ DIE HAPPY

NOTHINK ★ ZEA MAYS

EASTPAK / BCORE ESKENATOKIA

THE UNFINISHED SYMPATHY

NUEVA VULCANO ★ MAPLE

IT'S NOT NOT ★ HAPPY MEALS

FESTIDANZ ESKENATOKIA

HERNAN CATTANEO

SCRATCH PERVERTS ★ PSYCHONAUTS

MATTHEW DEKAY ★ DJ PANIC

WATCH TV - EL GRAN LAPOFSKY

+ PERFORMA 04, FOTOMARATÓN,
GRAFFITI Y FESTICALLE.MAD



29
MAIATZAK

HEINEKEN ESKENATOKIA

KORN

PIXIES

THE (INTERNATIONAL)

NOISE CONSPIRACY ★

TOKYO SEX DESTRUCTION

DELOREAN ★ LOS CORONAS

SOL MUSICA ESKENATOKIA

THE DATSUNS

★ THE BRONX

THE BLOOD BROTHERS

YOUNG HEART ATTACK

TERRORISTARS ★ AT LEAST

URBAN DUX ★ MONKEY HOLE

EASTPAK / BCORE ESKENATOKIA

G.A.S. DRUMMERS

NISEI ★ HALF FOOT OUTSIDE

MADEE ★ STANDSTILL

FESTIDANZ ESKENATOKIA

SANDER KLEINENBERG

RICHARD FEARLESS (DEATH IN VEGAS)

BIG MOJO ★ STANTON WARRIORS

DJ ZORRA ★ DJ GOLDITO



SARRERA EGUNA
50€
ALDEZ AURRETIK

BONOA
80€

SARRERA EGUNA
60€
SARRERAN

BONOA
90€

BEZ. Barne. Bonodunek soilik dute akanpatzeko eskubidea.

VENTA DE ENTRADAS
ServiCaixa
902 33 22 11
servicaixa.com

o llamando al
902 400 222
www.elcorteingles.es

Entradas.com 902 22 16 22

Carrefour

Salmeta puntuak: Fnac, Madrid Rock, Tiendas Tipo (Bilbao, Fuenlabrada, Granada, Santander), Maci Rock, Discos Revólver, Oficinas Aisa.

Bebes instituzionala: Comunidad de Madrid, CONSEJERÍA DE CULTURA Y DEPORTES, Dirección General de Promoción Cultural; AYUNTAMIENTO DE MÓSTOLES, EDUCACIÓN Y CULTURA

Gomendatzen du: 25 años, TELEMADRID, TENACIONES, FOX, 20 25

Laguntzailea: FINE PRODUCTIONS, LICOR 43, buen vivir, MÚSICA EN CULTURA

On line erretansmisioaren babeslea: Coca-Cola, Telefonica, creAccion, Heineken, www.Heineken.es

Antolatzailea: emisiodigital, EREPIDE GARRAIO OFIZIALA, ALSA, RENFE, Trenbide Garraio Ofiziala, Granadas Líneas Aéreas, S.M. 21

Bebesleak: MÚSICA EN CULTURA, rez

Info: 915 223 787 | festimad@festimad.es

«Baikorrarentzat belar oro da lore, ezkorrentzat lore oro da belar» (Finlandiako esakera)

Non zer

- GU GEU.
- IRUDIA. Ereaga ondartzat maizatzean. Asier Mentxaka.
- PLAZA. Iparraldean Getxon, Pantxoia Etchegoin. Leihatila, Josu Esnaola.
- LEHEN ETA ORAIN. Algortako Tellagorri plazako etxea.
- TALAI. Beste begirada bat eskualdeari.
- HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- AGENDA.

SAKONEAN

- ALBUMA. Zebrabideak. Asier Mentxaka.
- ARGAZKIA. Gurea zinema. Iker Elorriaga.
- BERBETAN. Arantza Urretabizkaia. Unai Brea.
- FOTOGRAFIA. Lamiakoko maskarada. Juan Gómez.

KULTURA ETA AISIA

- ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea. Fant zinemaldiaren 10. urteurrena.
- MUSIKA. Talde euskaldunak Festimad-en. Diskoen erreseinak.
- LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Igela argitalexea.
- KOMUNIKAZIOA. Euskarazko telebista internet-en.
- SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- ELKARRIZKETA. Ur Apalategi. Unai Brea.

EUSKARAZ

- AKABUKO PUNTE. Pedro Agirremota, Urtzi Iglesias. Xabi Billaoren "Gure berbakere" zutabea.
- URIBERTSOAN BARRENA. ALBEkumeak eta gainera Haitza Navasen bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

- JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan? Esaterako Getxoko batzokian.
- HOROSKOPOA.
- KOMIKIA. Dogan Gozel.
- DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- FLASH BACK. Bidegorri akademia, 1957. Bittor Egurrola.
- AITORMENAK. Eduardo Iturralde González. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka



30 Arantza Urretabizkaia



43 Ur Apalategi

Berbetan

Kazetaritzaren zurrunbiloa beharrezkoa duela baina literatura-rako denbora egarri dabilela aitortu digu idazle donostiarrak.



32 Lamiakoko maskarada



21 Nicolas Oñate



54 Eduardo Iturralde



24 Zebrabideak


BIZKAIA
irratia
barri - barri

FREKUENTZIA

102,6 F.M.Bilbo	96,7 F.M.Markina	92,5 F.M.Ondarroa	98,1 F.M.Lekeitio	96,7 F.M.Aramaio
-----------------	------------------	-------------------	-------------------	------------------

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Armezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Menbaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algortako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buenabea, Jabi Zabala, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarna Lezoan Euskara Elkarteak
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiazea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

**Aldizkari honek Bizarrak Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du**
Itxasgane Etxea / Karitatea 1
94 491 43 57 / 48990 Algorta

**GETXOKO UDALA**
Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

**Leioako Udala**
Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

**Erandioko Udala**
Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

**Bizkaiko Foru Aldundia**
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

**Fundación Grupo Eroski**
Aldizkari honek Eroski Jaurlaritzaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du

UK
Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!
BBK 2095 0121 10 91 02483676
Boluntzarreta

gugeu

uk@aldizkaria.biz

Emaila, webgunea, bilatzailea, ataria, posta-zerrenda, bitakora... horra hor gaur eguneko euskaldun ententimentuz jantziak jakin bai eta erabili ere behar duen hiztegi sortaxoa, bistara ageri denez, internet kontuei dagokiona. Gure bihotzeko aldizkari honetan sorrera-sorreratik erabili ditugu atzamar puntetan ordenadore arloko tresnak aurrean daukazuen orriei itxura eta mamia emateko, bai eta posta elektronikoa lankide eta laguntzaileekin harremanean jarduteko. Berrikuntza daukagu hemendik aurrera arlo horretan, email helbide berria erabiliko dugu eta, hemendik aurrera: uk@aldizkaria.biz

Sari darabilgu komunikatzeko bide hori, beraz, baina esango genuke ez dela nahi bezain sari, irakurleekiko harremanari dagokiola: faltan igarten ditugu zuen, irakurleon, iritzi eta ekarpenak. Aldizkarigileon artean askotan aipatzen dugun gaia da hori. Esan beharrik ez dago, aldizkari hau, goitik behera, zuontzako, Uribe Kostako euskal irakurleon jakinminerako eta gozamenerako egiten dugula egiten dugun lana, eta beraz, arrainak ura bezala behar ditugula zuen iritziak (gaurko hizkeran, feedback-a) eta ekarpenak. Baina halakorik gutxi-gutxi heltzen zaigu: hain bikain betetzen ote dugu gure lana?

Beraz, hor daukazue gure posta elektroniko helbide berria: erabili egizue! Bete ezazue! "Kolapsatu" egizue gure buzoi birtuala zuen iritzi eta eskakizunekin! Ea Iker Merchaneke interneten gaineko ataltxoan aipatzen duen "telendro" delakoa legez sareko aipatuenean gailurrera eramaten gaituzuen. Hala biz!

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu.
Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero erosi > **berria**

[irudia]



EREGAGA, 2004KO MAIATZA

Ez da giro / Noiz helduko ere da uda? Noiz egingo ere digu Eguzki amandreak irribarre handik goitik? Eguzkiak masaila apur bat erakusi orduko, irribarre egiteko keinua egiten hasi baino ez, eta mahulka laburreko kamiseta eta betaurreko beltzak janzen ditugu, baina ezin gara eguzkiaren bat-bateko keinuez fidatu, are gutxiago euskaldunok. Ezin ahaztu urtarook banaka heltzen direla, eta oraindik ez dela uda garaia / Argazkiak: Asier Menbaka

Leihatila

> Josu Esnaola

Zientziaz

Sasoi batean jaungoikoaren hitza sinisten zuten bezalaxe sinisten dugu gaur egun zientzian, hau da, itsu-itsuan. Inor ez da ausartzen zalantzan jartzen zientzia-gizonen diotena. Hala ere, zientzia ez dator beti bat eta halakoetan botereak ohi duen legez, irakurketa interesatua eginez, berari komeni zaionarekin baino ez da lotzen, "egiaren" zati hori egia absolutu eta bakartzat emanez. Horrela, Darwinek proposatutako hautespen naturalaren bidezko espezieen eboluzioa, gaizki ulertutako bizitzaren gatazka edo bizitzarengatik borroka eboluzio modu bakartzat aldarrikatu, eta ondorioz, baliabideengatik lehia guztiz jokabide naturalizat jotzen da, aintzakotzat ere hartu gabe gizakiarentzat askoz interesgarriagoa den bestelako eboluzio motak, esaterako Kropotkinek proposatutako elkaren arteko laguntzaren bidezko eboluzioa. Horrelako zer-bait gertatzen zaigu gaur egun elikagai transgenikoen auzian. Multinazionalak saldu nahi diguten paradisuak, goserik gabeko mundu kapitalistan, alegia, itsu-itsuan sinisteko prest gaude, dirua eta zientzia uzartzen dituen erlijio berriaren fede aitormena egiteko prest, alafede. 4

IRITZIA

"Iparra galdu gabe" lelopean Ipar Euskal Herria Getxora hurbiltzeko jardunaldiak antolatu ditu herriko Euskara Zerbitzuak orain gutxi. Honen gainean gogoeta eskatu diogu Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria den Pantxo Ecthegoini.

Iparraldea Getxon izan da

Hain hurbil eta ber denboran hain urrun: iparraldea Getxoraino etorri da hamar bat egunentzat. Eta ez da lehenengo aldia. Joan den urtean jadanik, egonaldi bat egin zuen, bertzeak bertze "Kantuketan" erakusketa ibiltariaren inguruan, hainbat ekitaldi antolatu baitzituen gurekin Getxoko udalak, euskal kantuaren eta musikaren ohoretan.

Maiz aho beteka ari gara erraten Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak indartu behar ditugula, behin betikotz muga burutik kenduz. Baina gero, gauzak egiterakoan, bertze musikarik da. Muga fisikorik ez daukagu (xuxenaz!) baina frangotan, muga gure buruetan sartua da, barne-barneraino, eta zoaz zu haren jalgiazterera!

Beharrik badira "Iparra galdu gabe" deitua izan den bezalako ekintza zehatzak, nun ere jendarteko harremanak premiatsuak diren, egitarau aberats baten alhan ezartzeko, konfiantza eta partaliertasan osoan.

Iparraldeko Euskal Kultur Erakundeak ez du inoiz aski eskertuko Getxoko Euskara zerbitzua,

egiten digun faborearentzat.

Eta aurtengo egitaraua guziz aberatsa izan da, iparraldeko kultura bere zabaltasunean hartzen baitu, adierazpen artistikoetarik hasirik gastronomiaren eta laborantzako mozkinen ezagutzeraino, ahantzi gabe kargudun politikoen parte hartzea, hain zuzen iparraldeko egoeraren aztertzeke.

Bai, Getxoko hirian gandi, izanen da aisialdi: idazle, kantari, musikari, kondalari, laborari eta sukaldari... hots, ainitz Iparraldeko mezulari, bakoitzak bere alorrean suharki lan egiten duena,

"Muga fisikorik ez daukagu, baina frangotan, muga gure buruetan sartua da, barne-barneraino, eta zoaz zu haren jalgiazterera!"

euskararen eta euskal kulturaren alde. Hori da egia handia: badu hogei eta hamar urte baino gehiago, emazte eta gizon sutsuek, halaber elkarteek ezinagoko lan baliosa eramaten dutela, nola euskararen erakaskuntzan, hala euskal kulturaren harat-hunatetan eta komunikabideetan, ahantzi gabe ekonomia munduan ari diren guziak. Eta gehitu nahi dut: maiz ahalbide gutirekin. Bizkitartean, gauza ederrik egin eta egiten da, Iparraldean, euskal kulturaren arraberritzeko, haren harroina, euskara, kinka txarrean baldin badago ere.

Gu, Euskal kultur erakundekook, hor gara artista horien guzien laguntzeko, bai sorkuntzan, bai formakuntzan eta hedapenean. Azpimarratu nahi dut badaukagula ere euskararen zerbitzu bat, hain zuzen, ofizialtasunik ez izan arren, euskara bizi publikoan sar dadin; halaber, haurrak eskolatik kanpo ere, euskaraz bizi daitezen, aisialdien bitartez.

Urhentzeko, aipatu nahi dut duela guti Eusko Jaurlaritzarekin izenpetu dugun lan hitzarmen garrantzitsua, mugaz gaindiko kultura trukaketen garatzeko. Opa dezagun, Getxo eredutzat hartuz, hedapen sare berriak edirenen ditugula bi aldeetan, Iparra galdu gabe, Hegoa hurbilagotzeko. 4

Pantxo Ecthegoin

Euskal Kultur Erakundeko zuzendaria (eke@wanadoo.fr)



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIAK UTZITAKO IRUDIA

[lehen]



[orain]

Iraganez doa denbora* beti / TELLAGORRI PLAZAKO ETXEA (1952-2004)

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

photoshop > arratoi izurritea Negurin



Irudiak eta manipulazioa: Gorka Vázquez



Goian, barran beharrean, Josu Egia, Alex Bengoetxea eta Aritza Garamendi. Alboko irudietan, taberna giroa lehenengoz ireki zen egunean.

Harremanak: traganarru777@hotmail.com



kronika > Traganarru taberna berriaren irekitze eguna

Algortako giroa gainbehera omen doa aspaldi honetan, baina badirudi lehengo taberna-giroa berpizte keinuak egiten hasi dela. Horren adibide dugu *Traganarru* tabernaren irekitzea. Lehen *Cafelito* eta *Traste* izenekin ezaguna zen taberna atzera zabaldu dute Josu Egia, Aritza Garamendik eta Alex Bengoetxeak *Traganarru* markapean. Traganarru, oso ezaguna ez bada ere, euskal mitologiako pertsonaia dugu. Bera da Bizkaiko golkoan egoten diren afontu eta ekaitzen sortzailea. Izen bereko tabernan itsasoarekin loturiko hainbat motibo ere topatuko ditu bisitariak: arpoi eder bat, Perrete zenak egindako itsasontzi baten maketa ederra... Bada, taberna berri hau apirilaren 29an zabaldu zen eta goiko argazkiek erakusten duten legez, makina bat lagun bildu zen txoko berrira. Topaleku hau, taberna ezezik kultur gunea izateko gogoz ere jaio da, eta esaterako, musika emanaldiak, filmen proiektzioak eta bertso saioak entzun daitezke bertan astean zehar. Ongi etorri *Traganarru!* ^m



gure posta elektronikoko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Urbe Kostako Aldizkaria

begizorrotz > BBK-ko surferra



Argazkian, Endika Prieto

Azala hamabostero aldatzen dugu UKn: hegazti iheslariak, olatu erraldoiak edota lorez betetako landa ederrak jartzen dizkizuegu irakurgaietako mamiaren aurrerapen legez. Baina atzealdea? Erreparatu al diozue noiz edo noiz UKren atzealdeari, beti irribarre ederraz agurtzen zaituzten orri horri? Nor ete da irribarre horren jabe den mutila? Ikerketa-makina martxan jarri dugu, eta hona hemen emaitzak: Endika Prieto getxoztarra. 26 urteko surflari hau da BBK-k 2003ko Aste Santuan kaleratutako iragarkiaren aurpegia, Barinatxe hondartzan atera zen argazkiaren bitartez. Endika Prietok berak azaldu digun legez, lagun batek eginiko eskaintza izan zen iragarkiarena, baina beste kamera batzuen aurrean ere jarria da (*Mari Claire* aldizkaria). ^m

kale izendegia > Maria Kristina erregina



Maria Kristina Habsburg-Lorenakoa Espainiako erregina bihurtu zen 21 urtegeaz, 1879an Alfons XII. arekin ezkondu. Sei urte geroago senarra hil zitzaion, eta handik gutxira hilondoko seme bat eduki zuen, Alfons XIII.a izango zena. Haurra jaio eta berehala errege izendatu zuten, bere amak hartu behar izan zuen erregeordetzaren ardura, 1902ra arte hain zuzen ere. Maria Kristina erreginarekin agintaldian alderdi liberala eta kontserbadorea tartekatuz ziren boterean, eta Espainiak azken koloniak galdu zituen (Kuba, Puerto Rico eta Filipinak). Erregina honek hiru txoko dauzka gurean bere izenagaz: Areetako kale txiker bat eta Ereagako inguruetan dauden parkea eta jaitsiera; hain zuzen, hondartza hori eta Maria Kristina parkea laster eraikiko ei den igogailu batek lotuko ditu. ^m

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO
Kantxa Kizol moda



350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Kalitatea bultzatzeko hitzarmena

Getxoko udalak **Esplugues de Llobregat** eta **Alcobendas** herriakaz **lankidetzaren hitzarmena** sinatuko du, kudeaketa alorrean informazioa elkarri igortzeko eta arlo horretan hobera egin ahal izateko

Getxoko udalak lau urterako **Lankidetzaren hitzarmena** sinatuko du **Esplugues de Llobregat (Bartzelona)** eta **Alcobendaseko (Madril)** udaletxeakaz, kudeaketa alorrean **Bikaintasun Eredu Europarraren kalitate eredu** jarraituz hobera egiteko asmoagaz.

Kudeaketaren kalitatea hobetzeko helburuagaz, Lankidetzaren hitzarmena sinatuko du Getxoko udalak Esplugues de Llobregat eta Alcobendaseko udalakaz. Hitzarmen honen sinatzaileak udalerriko kudeaketa kalitatearen Europako Bikaintasun ereduaren arabera Espainiako hiru udalik hoberenetarikoa ei dira, Iñaki Zarraoa Getxoko alkateak adierazi zuenez. Lau urteko iraupena izango du hiru udalerririk sinatuko duten hitzarmen honek eta hiru lan esparru bete beharko dituzte sinatzaileek.

Hiru betebeharreko hitzarmena

Hiru lan ildo edukiko ditu Getxo, Esplugues de Llobregat eta Alcobendaseko udalak sinatuko duten hitzarmenak: lehenengoa, udal bakoitzak bere kudeaketa kalitatea aztertu beharko du, gero beste bi udalekoen egoeragaz alderatu eta azkenik hala behar izanez gero, hobekuntzak egin.

Bigarrena, hiru udaleko partaideakaz lan-taldeak osatuko dituzte. Taldeok proiektu bateratuak aurrera eramateko helburua izango dute.

Hirugarren eta azken, udal bakoitzak kudeaketa kalitatearen alorrean egingo edo egiteko dituen proiektu eta prozesuen



Lau urteko iraupena edukiko du hiru udalerririk sinatuko duten hitzarmenak

berri eman beharko die beste udalei, hauek ere prozesu horretako hobekuntzak bereganatu ahal izateko.

«Kudeaketa kalitatea aztertu, lan-talde bateratuak sortu, eta Prozesu berrien berri eman gainontzekoei»

Iñaki Zarraoa Getxoko alkateak azaldu zuenez, kudeaketa alorreko kalitateari dagokiola Getxo oso toki onean dago kokatuta, udalerririk horiek lankidetzan jarduteak berak erakusten duen legez. Horren albotik, udal getxoztarra garatzen dabilen Kalitate Plangintzarako aurrerapausu garrantzitsutzat eman zuen hitzarmen hau. m

I aki

Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T:

Algorta

San Isidro jaiak

Idi probak, umeentzako jolasa, berbena, tortilla txapelketa, azoka gastronomikoa... a ze giroa!



San Isidroetako jai batzordea bilera batean

Egitarau ederra prestatu dute San Isidroko jai batzordekoek, eta batzordeko kideen kopurua ikusita, lan itzel polita egin dutela esan daiteke. Aurreko asteburuan hasi baziren ere, astebukaera honetarako aurreikusten diren ekintzen berri emango dizuegu UKn. Maiatzaren 15ean, zapatuan, Meza Nagusiak emango dio hasiera jaiegunari eguerdiko 12etan. Arratsaldeko 17:00etan idi-probak egongo dira, eta orduantxe hasiko dira umeentzako jolasak ere. Ordu bat beranduago Umeen Mozorro lehiaketa egingo da, eta ordurako parrandazaleak sabela jan eske edukiko duenez saiheskia prestatuko

dute antolatzaileek. Eta zelan faltako da musika euskal jairen batean? 21:00etan Itxas Argia Nagusien jaldiaz batera berbena eta karaokera izango dira.

Domekan ere jaiak

Goizean goiz altxatu beharko dira plateritiroan lehiatu gura dutenek (09:30), ez hainbeste azoka gastronomikora joan nahi dutenek (11:00). Bestetik, Tortilla txapelketako parte-hartzaileek 12:00etan daukate zita, eta ordu erdi beranduago Andres Isasi Udal Eskola Bandak joko du. 2004ko San Isidroei agur esateko, dantzaldia prestatu dute antolatzaileek. m

AMARRATZA TALDEA AURKEZTU DUTE

Uribe Kostako 15tik gora gaztek osatzen dute Amarratza taldea, eta "eskualdeko kolektibo eta taldeek aurrera eramaten dituzten borroken euskarri eta bultzatzaile, eta baita inoren gain ez dauden borroka askoren eusle" izateko sortu dute taldea. Bi-hiru hilabete daramatza beharrez Amarratza elkarteak eta lan alor bi jorratu ditu: Erandioko Ertzaintzaren Superkuartelaren eta Lurralde Plan-Partzialaren (PTP) aurkakoak, biekien guztiz desados dira, eta beraz kontra egiteko asmoa dute. **UK=CU, Uribe Kosta = Catastrofe Urbana** kanpaina ere hasi dute, PTParen aurkako egitasmoa dela adieraziz.


Taldea aurkezpen egunean



ENPRESA TXIKIENTZAKO INTERNET IKASTAROAK

Areetako Kz-guneak enpresa txikientzako (10 langile baino gutxiago) interneteko ikastaroak eskainiko ditu doan. Bi mailatako ikastaroak emango dituzte: interneteko oinarriko ezagutza irakatsiko du batek, eta besteak esparru berezituetan jarriko du arreta.

Informazio gehiago: 94 431 65 89



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurritan.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Saharako umeak gurera

Beste behin ere, Tindufeko (Sahara) errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren umetxoak udaran gurean hartzeko kanpaina jarri du martxan ATFAL-Getxo Sahararen aldeko elkarteak, eta udalak ere parte hartzen du. Umeok uztailean eta abuztuan oporraldia gurekin igaro dezaten eskatzeko epea zabalik dago. Getxoztar familiaren batek umeotako bat etxean hartzeko asmoa badu, maiatzaren 25a baino lehen jarri beharko du harremanean AFTAL elkarteagaz. 8 ume ekarri nahi ditu aurten AFTALek Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetatik, gurean egonaldia egiteko; dena den, ume gehiago ere ekar litezke. ^m

Harremanetarako:
sahara@atfalgetxo.org / 658 751 359



GARAPEN LANKIDETZARAKO LAGUNTZEN ESKAERAK

Maiatzaren 28ra arte dago zabalik garapen lankidetzako egitasmoetarako diru-laguntzak eskatzeko epea. Getxoko udalak 340.000 euro bideratuko ditu aurten egitasmo hauetara. Iaz 51 GKEk edo garapen lankidetzako arloko elkarteak egin zuten laguntzok jasotzeko eskaera, eta 21 elkarrean artean banatu ziren diru-laguntzak. Honako hiru esparruetan diharduten elkarteek jasoko ei dituzte diru-laguntzok: herri txiroen artean garatzeko proiektuak lantzen dituztenek, getxoztarrak garapen lankidetzako proiektuak arduratu hartu dezaten sentsibilizazio kanpainak eta gisa horretako ekimenak egiten dituztenek, eta Tindufen errefuxiatu sahararrei laguntza emateko egitasmoak prestatzen dituztenek.

Rosa Temiño > Biladi elkarteeko lehendakaria

“Palestinarrak egin dezaketena apurra egiten dabilta: borroka, hariak tankeen kontra”



Rosa Temiño, Palestinaren aldeko elkartearen lehendakaria (harremanetarako: samera@euskalnet.net)

Biladi, Palestinar herriaren aldeko Getxoko kultur elkartea lanean da urriaz geroztik. Hasieran palestinar-euskaldun familiek sortu zuten elkarteak, orain, 60 bat bazkide dauzka, gehienak euskaldunak, eta gehiagorentzat ateak zabal-zabalik. Biladi arabierazko berba da: “nire ama lurra” esan gura du. Rosa Temiño da elkarte-ko presidentea.

—Zeintzuk dira elkartearen helburuak?

—Palestinaren aldeko aldarrikapen bat egitea da asmoa: sentsibilizazio-kanpainak, lankidetzako proiektuak eta abar garatzen gabiltza. Beharbada emakume gaietan lan egiteko joera handiagoa daukagu, baina emakumezkoak zein gizonezkoak daude premia larrian.

—Palestinatik egunero datoz albiste beltzak.

—Agian guk beste modu batera bizi dugu. Telebistan entzun nuen atzo: “*hildakoen kopurua zehaztugabea da...*”. Kopuru zehaztugabe hori agian 600 hildako dira, ez da haien irudirik ematen, ez dugu haien aurpegiak ikusten. Izugarria da hildako batzuek beste batzuek baino balio handiagoa edukitzea. Hildakoen gaia ikaragarria da, eta bizi duten egoera... akaboa, kaos! Herritarren %60 lanbakoak dira, besteak funtzionario eta GKEetako langileak.

—Aspalditik dugu gatazka Palestinar-Israeliarraren berri. Baina, baliteke askok zergatia ez ulertzea.

—Palestinak ez du sekula gerretan parte hartu, ez dio inongo herriri eraso egin. 1948an NBEren ebazpen batek Palestina bitan banatzea erabaki zuen: estatu palestinarra eta israeldarra. Ondorioz, palestinar asko bere lurretatik kanporatu zituzten. 1967an gerra izan zen (palestinarrak ez zuten armarik), eta judutarrek (Israel) Cisjordaniako zati bat berretzat hartu zuten. Orain armada batek herri oso bat mendean dauka, indarrez, eskubide guztiak urratu-

«Izugarria da hildako batzuek beste batzuek baino balio handiagoa izatea»

ta. Aramada itzel boteretsua da, AEBen babes osoa duena, eta gainera nazioartean ere gatazka isilarazten du. Askotan salatu izan da alemaniarrek judutarrei eginikoa, baina hori ez da ezer judutarrek palestinarrek egiten dabilzanaren ondoan. Palestinarrak egin dezaketena apurra egiten dabilta: tankeen kontra hariak bota. Terrorismoaren aurka borrokatzeko eskatzen diete, baina ba al dago armadak herri bat mendean hartzea baino terrorismo handiagorik? ^m

M. Almoneda azoka Antzinako trapaserien merkatua



Ehundik gora erakusmahai jarriko dira aurtengo azokan

Getxoko IV Almoneda azoka maiatzaren 20tik 23ra egingo da aurten. Aurreko urtetan legez, Areetako metro Geltokiko plazan jarri duten 2.500 metro koadroko karpak antzinako jeneroen bilgune, saltoki eta erakusketa-leku izango da. Getxoko Kultur Etxeak antolatzen duen azoka hau goizean 10:00etatik 14:00etara egongo zabalik, eta arratsaldean 16:00etatik 18:00etara.

Gutzira 50 antzinako-gaien merkataria edo zaleek jarriko dituzte ikusgai eta sal-

gaiak, Almoneda osatzen duten 100dik gora erakusmahaietan. Madril,artzelona, Zaragoza, Kantabria, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko merkataria eta bildumazaleek hartuko dute parte, eta guztien artean, 15 Uribe Kostakoak izango dira. Beraz, maiatzaren 20an hasi eta lau egunegoko egongo da zabalik aurtengo IV. Getxoko Almoneda azoka, sarrera-txartela 2,50 euroan ordainduta aspaldiko tresnak ezagutu, ikusi edota erosi ahal izateko aukera emango duena. ^m

XXI. ESKULANGINTZA AZOKA

Maiatzaren azken asteburua aukeratu du Getxoko Kultur Etxeak XXI. Eskulangintza azoka egiteko. Areetako Geltoki plazan ipinitako Almoneda azokarako karpak erabiliko dute eskulangintza azoka egiteko ere, eta karparen ordutegia hurrengo izango da: 11:00etatik eguerdiko 14:30ra, eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara. 100 bat astisauren lanak egongo dira ikusgai eta salgai, beraz, maiatzaren 28tik 30era Areetan. Eskulanen merkatura sartzeko 2,50 euro ordaindu beharko dira.

IPAR URIBEKO BERTSO TXAPELKETA HILAREN 22an AREETAN

Ipar Uribeko V. Bertsolari txapelketa Getxon egingo da, eta Bizkaiko Txapelketaren barruan dagoen kanporaketa da hau. ALBE eta Euskara Zerbitzuak antolatuko dute txapelketa, eta Areetako Andres Isasi Musika Eskolan izango da maiatzaren 22an, zapatua. Hitzordua arratsaldeko 19:00etarako jarri dute, eta sartzeara gonbidapen bitartekoa izango da.

Txapelketaren kartel iragarlea

ALGORTAN EUSKAL KANTU TXAPELKETAKO KANPORAKETA

Euskal Kantu txapelketarako kanporaketa bat Algortan egingo da aurten, Bizkaiko 3. kanporaketa hain zuzen ere. Txapelketarako hitzordua maiatzaren 22rako jarri dute antolatzaileek, eta Getxo Antzokian egingo da arratsaldeko 19:30ean. Horrenbestez, kantuz eta bertsoz alaituko da Getxo maiatzaren 22an, baina ikusentzuleak bata edo besteaz gozatzea aukeratu beharko du.

cianoplan s.a.
global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
http://www.cianoplan.es

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Lamiakoko Maskaradak 25 urte

Urtero legez, **euskal izaki mitologikoek** magia beteko dituzte Lamiakoko kaleak. Hitzordua, **maiatzaren 28an**

Maiatzeko azken ostiralean, ohiturak agintzen duenez, Marik, Akerrek, Ingumak eta beste pertsonaia mitologiko ugari Lamiako auzoko kaleak hartuko dituzte. Aurtengoa, gainera, urte berezia da: maskaradaren 25. urteurrena.

Aitor Sesumagak eta Igor Pascualek urte mordoska daramate antolatzaile, eta azaldu dutenez, maskarada sortzearen ideia garaiko testuinguruan kokatu behar da: *"Garaiko auzoko gazteen ekimena izan zen. Gogonatu behar da 78an izan zela: diktadura bukatu berria, eta euskal mugimenduaren kultura adierazpen oro debekatuta egon ondoren, berpizteko gogoia bizia zegoela."*

Lamiakoko Maskaradak Euskal Herriko mitologiaren antzepea egiten du. Alde batetik, jentil mitologiaren eta inposatutako kristautasunaren arteko borroka, eta bestetik, auzoari izena ematen dion Lamiaren istorioa uztartzen ditu. Igorrek dioenez ikuskizuna hiru ataletan egiten da: *"Lehenengo bi atalak arratsaldean egiten dira. Bertan, herrian zehar*

Programa

Maskarada. Maiatzaren 28an. Arratsaldean: 17:30ean Gaztelubide kalean. Gauean: 22:30ean Kultur Aretoaren aurrean.

25. urteurren ekitaldiak
Maiatzaren 22an: Herri afaria eta erromeria.
Maiatzaren 28an: 22:00an, diapositiba emanaldia.



Argazkian, Igor Pascual eta Aitor Sesumaga, maskaradako antolatzaileetako batzuk

egiten den kalejira batean Mari eta Sugarrek beste pertsonaia batzuk biltzen dituzte dantzen bitartez. Hirugarren zatian, gaueko akelarre handian, herrian bildutako pertsonaia guztiak dantzatuko dute suaren inguruan."


Gau ilunean, suaren argitan, arbasoen erroak, maskara ikusgarriak, dantza alaiak, ... maskarada ikustera hurbiltzeko gonbidapena luzatzen dute Igorrek eta Asierrek: *"Ikustea merezi duen ikuskizuna da. Giro berezia sortzen da eta ez du inor axolagabe utziko."*

Lamiaren Kondaira

Prudentzia alargunaren semea marinela zen. Urrunean itsasontziren bat ikusten zuenean, semea etorriko zen esperantzaz Ondizen zuen etxetik Abra ingurura jaisten zen. Halako batean, betiko legez, semea agertu ez eta tristuraz beteta etxerako bidean hil egin zen. Kondairak dioenez, Lami bihurtu zen.

Umore azoka

Dibertitzeko puntako **50 kale ikuskizun** baino gehiago hilaren amaieran Leioan



Aurtengo azokaren kartel iragarlea

Ikuskizunak

Non: Euskal Etxeen Plaza, Errekalde Plaza, Bulevarra, Jose Ramon Aketxe Plaza, Sabino Arana Kalea, Institutua, Auditoriuma, Ikea Barri Plaza, Lamiako, Artatza Kalea, San Bartolome

Ordutegiak

- Maiatzak 27 eguna
18:00etatik 00:30ak arte.
- Maiatzak 28, barikua
18:00etatik 01:00ak arte.
- Maiatzak 29 zapatua
12:30etatik 01:00ak arte
- Maiatzak 30 domeka
Eguerdian: 12:30etik
14:30ak arte.

Leioako kaleak umorez jantziko dira datorren maiatzaren 27tik 30era bitartean. Egun horietan Kale Artisten Leioako Umore Azokak antzerki, musika, zirku eta beste hainbat ikuskizunekin beteko ditu herriko bazter guztiak. 50 ikuskizunetik gora eskainiko dituzte Euskal Herriko, Kataluniako, Aragoiko, Holandako, Frantziako, Argentinako, Erresuma Batuko eta beste zenbait herrialdeetako taldeek.

1996an Leioako Udaleko kultur atala Umore Azoka antolatzen hasi zenetik hazten eta garrantzia hartzen joan da urtez urte. Ekitaldiak zuen arrakastaz jabeturik,

2000. urtean bultzada berria jaso zuen Umore Azokak. Horrela, aurretik leku itxietan egiten ziren ikuskizunak herriko kaleetan antzetzten hasi ziren. Gaur egun, Leioako Umore Azoka herrialde askotatik etortzen diren antzerki talde, programatzaile eta zaleen topagunea da lau egunez.

Leioaztarrek herriko auzo eta txoko guztietan edukiko dute umorez beteriko saioak ikusteko aukera. Horrela, ostegun eta ostiralean ikuskizunak arratsalde izango dira, larunbatean egun osoan zehar, eta azkenik, igande eguerdian emango zaio amaiera azokari. www.umoreazoka.org

ETXEKO? ELEKTROTRESNEN? KONPON -
Lacofris, s.L. SERVITEC
Y MARKA GUZTIAK
Y 24 ORDUTAN ERANTZUNA
Y 3 HILABETEKO GARANTIA
Y 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

KURKUDI LIBURUENDAK
Euskarazko irakurgai
Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

amesti 7sl
[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]
Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

ERROTULOAK
ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK
egiten ditugu
e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak
Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

BETIKO IKASTOLA
— 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
— Ingelera 4 urtetik aurrera.
— Frantsesa DBHn.
— Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
— Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
— Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...
Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

Nishma Sahararen lagunak

Nishma elkarteak **Sahararen alde** lan egiteko sortu zen 2002. urtean, emakume talde batek Tindufeko kanpamenduetara egin zuen bisitaren ostean. Giza laguntzako proiektuak garatzen dituzte

“Errefuxiatuen kanpamenduetan ez daukate ezer. Joan aurretik ere jakin badakizuzue zein egoeratan dagozen, baina hara ailegatzaren zaren eta ikusten dozunean benetan ez daukatela ezer, baina ezer... horrek ukitu egiten zaitu. Behar-beharrezkoa dute beste herri batzuen laguntza. Janaria emotea ondo dago, baina jendea mugiarazteko eta kontzientziatzeko zeozer gehiago egin behar da”. Horrela sortu zen Nishma elkarteak, Mila Zuberok azaldu digunez.

Proiektuen bitartez egiten dute lan, eta proiektuekin lotuta lantzen dute kontzientzia hartzea eskoletan nahiz herrian: Sahararen historia, bizi duten egoera politikoa eta abar ezagutzera emateko materiala prestatu dute.

“Bereziki bi proiektu eramaten ditugu aurrera. Batetik, ‘oporrak bakean’ esaten zaiona, umeak udan hemengo famulietan egoteko, eta bestetik, janaria, botikak, eskola-



Saharari buruzko hitzaldia, Mohamek El Mamun Polisarioko ordezkariarekin. Argazki txikian, Mila Zuberoko materiala, eguzki plakak, kamioiak, eta azken batean, giza laguntza biltzeko eta eramateko proiektua”.

“Elkartean gehienok emakumeak gara, etxeoandreak, irakasleak... denetarikojende dago eta aberasgarria da. Gainera, jendea borondatez ari da eta polita da elkarrekin lan egitea”.

Nishmak 150 bat bazkide ditu, baina jende gaztearen falta sumatzen dute. m

te. Lehen Bizkaian jokatzeko zitezuten partiduak, eta metroz ez bazen, gurasoen autotan joaten ziren jokalekuetara. Datorren denboraldian Nafarroa, Gipuzkoa eta Logroño aldera joateko autobusa erabili beharko dute: gastu gehiago hortik, bai eta epaileei ordaintzeko orduan (orain artekoa bi halako). Kosta ala kosta, aurrera egiteko asmoa daukate taldekideek. Gainera prentsan eta bestelako komunikabideetan agertuko direnez, badute itxaropena enpresaren baten babesia jasotzeko. Halere, Ricardo García entrenatzailearen esanetan **“gaur egun oso gutxi dira kiroltan inbertitzen duten enpresak eta ez da erraza izango”.** Erandioren eta balizko babeslearen izena zabaltzeko aukera paregabea eskaintzen

te. Lehen Bizkaian jokatzeko zitezuten partiduak, eta metroz ez bazen, gurasoen autotan joaten ziren jokalekuetara. Datorren denboraldian Nafarroa, Gipuzkoa eta Logroño aldera joateko autobusa erabili beharko dute: gastu gehiago hortik, bai eta epaileei ordaintzeko orduan (orain artekoa bi halako). Kosta ala kosta, aurrera egiteko asmoa daukate taldekideek. Gainera prentsan eta bestelako komunikabideetan agertuko direnez, badute itxaropena enpresaren baten babesia jasotzeko. Halere, Ricardo García entrenatzailearen esanetan **“gaur egun oso gutxi dira kiroltan inbertitzen duten enpresak eta ez da erraza izango”.** Erandioren eta balizko babeslearen izena zabaltzeko aukera paregabea eskaintzen

PASARELA ERANDIO ARRAKASTATSUA



Herriko modaren agertokiak jende ugari bildu zuen Alzaga kiroldegian, eta kanpotik etorritakoekin batera modelo lanetan jarduteko aukera eskaini zien erandioztar batzuei. Lutxana arraun-taldeko arraunlariek, esaterako, erakustaldi itxurosoa egin zuten.

Erandio-Altzaga saskibaloitaldeak babesle bila dabil



Erandio-Altzaga saskibaloitaldeak nesken bost talde dauzka maila guztietakoak zenbatuta

Amaitu berri den denboraldian euren kategoriako txapeldun izan direnez, estatuko bigarren mailan jokatu dute Erandioko neskek urritik aurrera. Categoria igotzearekin batera gastuak ere nabarmen gehituko zaizkiela eta babesle bila dabilta.

Mailan gora egitea pizgarri izango da Sira, Bea, Izaskun, Amagoia, Marian, Erdoitza, Ainara, Eneritz, Idoia eta Vanesarentzat. Gazteak dira, gehienak 20-21 urtekoak, eta irrikaz daude ospetsuagoak diren taldeekin jokatzeko, indarrak neurtzeko.

Alkateak agindu die kategoriari berria beharrezko diren markadore bereziak jarriko dituztela kiroldegian eta, orain arte bezala, aurrerantzean ere edukiko dutela Udalaren babesia. Baina hori eta gehiago beharko du-

te. Lehen Bizkaian jokatzeko zitezuten partiduak, eta metroz ez bazen, gurasoen autotan joaten ziren jokalekuetara. Datorren denboraldian Nafarroa, Gipuzkoa eta Logroño aldera joateko autobusa erabili beharko dute: gastu gehiago hortik, bai eta epaileei ordaintzeko orduan (orain artekoa bi halako). Kosta ala kosta, aurrera egiteko asmoa daukate taldekideek. Gainera prentsan eta bestelako komunikabideetan agertuko direnez, badute itxaropena enpresaren baten babesia jasotzeko. Halere, Ricardo García entrenatzailearen esanetan **“gaur egun oso gutxi dira kiroltan inbertitzen duten enpresak eta ez da erraza izango”.** Erandioren eta balizko babeslearen izena zabaltzeko aukera paregabea eskaintzen

MAIATZAREN 22AN TXUMA NAZIOARTEKO TXIRRINDULARI LASTERKETA

Maiatzaren 22an arrastiko 15:30etik aurrera “Txuma” Erandioko apaiza izan zenaren omenez ospatzen den nazioarteko txirrindulari lasterketaren hamargarren edizioa korrituko da. Txirrindulariak Erandio Goikoako Batzoki ondotik irtengo dira eta 170 kilometro egin beharko dute leku berean egongo den helmugaraino ailegatu aurretik. Lasterketa hau 23 urte baino gutxiagoko elite kategoriakoa da.



ASTRABUDUTIK GASHERBRUM II-RA JOXE RAMON AGIRRE MENDIZALEAREN ESKUTIK

Maiatzaren 20an Josu Murueta plazan arrastiko 8etatik aurrera, Joxe Ramon Agirre Gasherbrum II mendira egindako bidaiaren pasadizoak entzuteko aukera edukiko dugu. Mendizaleak ikusentzunezko diaporamaren bitartez bizitzaren bidea erakutsi gura du: **“Gizakiak bere ibilbidean hainbat eta hainbat helburu eta asmo burutzeko bidegurutze ugari gainditu behar izaten ditu”** diosku berak. Urak goitik behera egindako bide bera jarraituz eramango gaitu Jose Ramonek Gasherbrum II mendira. Ekitaldi hau Berbots Erandion Euskaraz taldeak antolatuta du.

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel. & Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 24, behe ezkerria
ALGORTA

BEROGAILU ETA ITUR-

T: 430 53

HIRURAK

Sarrikobaso 15

GOIZEAN

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Libxarriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Tellexe 13
T: 460 02 88
ALGORTA



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASARTENA

www.basartena.com

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

Taberna Berrri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



Instalazio elektrikoak Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 ordu
670 415 732

Konpromisunik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabiloien erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonía, ahots eta datuen sareak

[sopelana]

Hondurasegaz elkartasuna

Sembrando Futuro GKEaren material bilketa



Argazkian, bildutako materiala Honduraserako bidean

Sembrando Futuro Gobernu Kanpo-ko erakundeak Honduraserako bidaltzeko material bilketa antolatu zuen hilaren hasieran. Ez da GKE honek Sopelanan egiten duen lehen ekimena: aurreko aldi batean eskola bat eraikitzea zuten helburu, eta oraingoan emakumeentzako gizarte zentru bat sortzea da asmoa. Pozik daude batutako materialagaz: 15 bizikleta, 3 ordenadore, arropa ugari ume, andrazko zein gizonentzako, jostailuak, ikasteko mahaiak, fotokopiagailuak, eskolarako materiala, eta abar ugari bildu dituzte.

Sembrando Futuro GKE 1999tik dabil beharrean Honduraserako bidaltzen, elkartasuna adierazten, gainerako lankidetzak proiektuak gauzatzen... Sopeloztarrez gain, inguruko beste herrietakoek ere hartu dute parte ekimen honetan, Euskal Herri osoan eta Errioxatik ere heldu da laguntza, kasu honetan gizarte zentruarako materiala. Horren albotik, GKEtik Sopelano udalak, Aixerrota institutuak eta Zipiriñe ikastolak emandako laguntza azpimarratu gura izan dute. m

TEKNOLOGIA BERRIEN INGURUKO HITZALDIA

Sopelano Kultur Etxeak Teknologia Berrien inguruko hitzaldia antolatu du. Hitzaldia Etxebarriko Asialdirako Elkarteak emango du udaletxeko Hall Kulturalean. Teknologia Berrien inguruko nondik norakoak, edota gaurko gizartean duten edota izango duten garrantziaren berri eduki gura duenak maiatzaren 18an dauka zita, martitzena, arratsaldeko 19:30ean.

III. MARTXA ZIKLOTURISTA

III. Martxa Zikloturista antolatu du Sopelano udalak Ugeraga Kirol-Txirindularitza elkarteagaz batera, eta aurreko urteetan legez, herritarren partehartzea behar-beharrezkoa da, sopeloztarrak dira-eta marxa honetako protagonistak. Maiatzaren 16an udaletxeko plazatik irtengo da bizikleta marxa eguerdiko 12:00etan. Guraso eta seme-alabak batera udalerriko kaleetan zehar bizikleta gainean ibiltzea ei da hiru urtetik hona udaberriero antolatzen den marxa honen helburua. Beraz, txirinduz beteko ei dira Sopelano kaleak maiatzaren 16an.

[sopelana]

Juan Angel Zabala > Txori kantarien trebatzailea

“Danak ez dira Pavarotti edo Carreras”



Argazkian, Angel Zabala

Txori kantariak trebatzen zalea da Juan Angel Zabala “Zabalita” sopeloztarra. Maiatzeko lehen asteburuan Sopelanoan egin zen V. Txori Abeslarien txapelketan ere parte hartu zuen, baina kantari hobek egon ei ziren eta ezin izan zuen garikurrik lortu. Bilboko Txori Lagunak elkarteak antolatu zuen txapelketa Sopelano udalaren laguntzaz, eta alor bitan egin zen: Tokikoen lehiaketa eta lehiaketa Orokorra. Azken honetan federatuek bakarrik parte har dezakete, eta sailkatzen direnak Bilboko Albia Lorategietan egingo den Euskadiko Txori Kantarien txapelketan lehiatuko dira. Txokak eta karnabak dira kantariak, eta

euren arteko gurutzatuak ere bai.

Zabalitak txokak eta txoka-gurutzatuak dauzka, gaur egun hiru txori besterik ez, kantari onak ez direnak aske uzten dituelako, baina umeak egiteko garaian 18-20 bat edukitzen ditu. Gaztetatik datorriko txorienganako zaletasuna eta 10-12 urte daroaz txapelketetan parte hartzen: urtean 18 bat lehiaketetara aurkezten da. *Zabalitak* azaldu digunez, txoriei abesten irakasteko zinta batean grabatutako txorrotxio zuzenak edo nota onak jartzen zaizkie, eta txori batzuek kopiatu egiten dituzte eta besteek ez, berak dioen legez: “*personak legez, danak ez dira Pavarotti, Carreras edo Placido Domingo*”. m

JOSEBA KOLDOBIKA BEGOÑAREN MARGOLANEN ERAKUSKETA JARRI DUTE LAIAK TABERNAN

Sopelano Laiak tabernak denboralditxo bat daroa erakusketak ikusgai jartzen. Oraingo honetan Joseba Koldobika Begoña sopeloztarraren margolanek jantzen dituzte tabernako hormak: 10-12 koadroz osatutako erakusketa. Maiatzaren 10tik 25era egongo dira sopeloztar margolari honen lanak ikusgai Laiak tabernan.

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala
urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikastola.net

LAIK Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tf. 94 676 03 28

Loteria Sopela

Iparragirre 6, Sopela

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

KULTUR JARDUNALDIEN AZKENENGO TXANPA

Berangoko udalak eta Kultur Etxeak antolatutako dituzten VI. Kultur jardunaldiak azken txanpan daude, baina oraindik ere bada zer gozatu eta ikusi: maiatzaren 16an Kultur Etxeko antzerki taldearen eskutik haur antzerkia izango da; 19an sokatira eta trontza erakustaldia eskainiko du Torrekolanda Herri Kirol taldeak; 21ean San Pedro Cantorum Eskola Sopelanako abesbatzak emanaldia emango du; 27an Adagio Ballet elkartearen dantza ikuskizuna izango da, eta 28an berriz, areto dantzena, Kultur Etxeko taldearen eskutik. Azkenik, jardunaldiei amaiera goxoa emateko, txokolatada eta haur parkea presatatu dituzte Berangoko Emakumeen Kultur elkarteak eta Jubilatuen elkarteak.

BERANGOTIK BILBORA DOA BAKEAREN USOA

Berangoko Santo Domingo de Guzman Lehen Hezkuntzako ikasleek Bakearen Usoa sortu dute. Beste uso askogaz batera bakea aldarrikatuko du uso berangoztarrak Bilboko kaleetan. Haurren eskuek eginiko usoa da: lehen hezkuntzako ikasleek egin dute hain zuzen, eta usoaren irudiaren barnean sartu dituzte euren guztien eskaerak.

Ikasleak egindako usoaren alboan



Nekazaritza eta artisautza azokako postu berangoztarrak



Egurra lantzeko lantegiko taldekideak

Maiatzaren 2an egin zen Berangon nekazaritza eta artisautza azoka, eta eguraldia lagun zela, jendez bete zen eliza aurreko landa. Berangoko Simon Otxandategi dantza taldeak antolatu zuen azokan ia 70 postu edo erakusleku izan ziren: ortuko produktu freskoak, loreak, txakolina, ezti, txokolata, gaztaia, iparraldeko pate, arrautza ekologikoak, ogia, euskal pastela, otzarak, fosilak... denetarik jarri zuten ikusgai eta salgai nekazari eta artisauak.

Uribe Kostako nekazariak eta artisauak ere ez zuten hitzordua galdu gura izan, eta 15 bat erakusleku jarri zituzten; horietatik 5 edo, berangoztarrak. Guztio-

tatik egurra lantzen zuen postu berangoztarrak harrapatu gintuen eta liluratuta utzi, pelotako pala zahar bategaz erloju bat egin daitekeela ikusita. Kultur Etxearen egurra lantzeko lantegian 15 lagunek eginiko lanak ere ageri ziren: egurrezko koadroak, kutxak, kutxatzarrak... Jende asko hurbildu zen lanon prezioaz galdezka, baina ez zeuden salgai.

VI. Euskal Pastelaren txapelketa

Azokagaz batera, Euskadiko VI. Euskal Pastel txapelketa egin zen, eta Arboledako Joseba Rodriguezen pastela izan zen garaile, azken urteetako irabazlearen eta beste 10 lehiakideren aurretik. m

Nicolas Oñate > Plentziako alkatea

“Onena litzateke udako biztanle ugarietako batzuk hemen bizitzea neguan ere, oreka apur bat lortzeko”

Nicolas Oñate Plentziako alkate da orain dela 5 urtetik. Arbasoak plentziarrak zituen, eta ikasle garaia salbu, beti bizi izan da Plentzian. 59 urte dauka eta Ingeniaritza Teknikoko ikasketak egin zituen. Enpresa batean lanean zebilela hura utzi eta herriko alkatetzara hartu zuen.

—Zer egin gura zenuke udalerrian, edorze-gaitik egin ezin duzuna.

—Badaude proiektu batzuk ez direnak udalaren eskumena bakarrik, beste erakunde batzuen esku ere badaude. Beste erakunde batzuekin egiten diren proiektuek, normalean gauzatzeko denbora gehiago behar dute, egiten hasi gara baina, oraindik ez ditugu amaitu. Eta beti daukazu jakinmin hori, ezta? Ea hasi dituzun proiektuak amaituta ikusiko dituzun ala ez: lur zingiratsuen gaia, etxebizitzena, aparkalekuena, edota kirol arloan ere hobetu gura genituzkeen instalazioak ditugu. Beste arrazoi batzuen artean, horiek izan dira neure burua bigarren legealdirako aurkezteko arrazoiak.

—Egin al duzu zeozer egin gura ez zenuena?

—Ba, bai. Alde batetik, auzokideen eskaerei batzuetan eman beharreko ezezoak, eta bestetik, jarri beharreko zigorrak: ordutegi-tan, obra kontuetan... Hartutako erabakiak arrazoiak izan arren, legearen kontra edota biztanleen ongizatearen aurka zihoazelako, gai horiek oso desatseginak izaten dira.

—Zelan bizi da euskara Plentzian?

—Beste herrietan legez, gora egin du, eta asko, gehien bat gazteen artean. Irakaskuntza publikoak zein pribatuak euskararen alorrean aurrera egin du-eta. Baina zahartxoagoen artean, bere garaian ezin izan zuten euskara



Argazkian, Nicolas Oñate

ikasi, aukerarik ez zegoelako edo... gainera garai batean ez zegoen baimenduta, ba eurek oraindik gabeziak dituzte. Gazteen eta nagusien artean dagoen hutsune hori konponduko balitz nik uste jende gehiagok berba egingo lukeela, hau da, nagusiek euskaraz egingo

«Egia aurrean eta zintzo herriaren ongizatea bilatzen duen plentziarrari ematen diot nik garrantzia»

balute gazteek ere egingo luketela. Bi belaualdi horien artean euskaraz elkar ulertuko lirake orduan, eta oraingo gazteak nagusitzen direnean uste dut hori lortu ahal izango dela. Gero, guk laguntzak eskaintzen ditugu: Habe eta Aek-ri dirulaguntzak, udaleko langileentzat ikastaroak eta Mankomunitateko euskara plana dago.

—Zein da zure Plentzia perfektuaren irudia? —Neguan, daukagun 4.200 biztanle soile-

kin, udalerririk defizitarioa gara, baina udan kopuru hori ia bider lau egiten da, aro horretan asko gara. Hor desoreka sortzen da, eta ez da ona herriarentzako: neguan dendak ez dabilta lar ondo, jarduera guztiak, herriko bizitza azken finean, murriztu egiten da. Onena litzateke udako ia 16.000 herritarretatik zati bat, 3.000 bat, neguan ere egotea, balantza apur bat orekatzeko. Gazteriarentzat, kulturarako, kirolerako, komertziorako eta denetarako izango litzateke ona hori. Bestetik, dugun kultura eta kirol mailari eutsi gura genioke, eta hobetzea posible balitz hobetu, baina gixienez eutsi. Amaitzeko, hiru arazo konpondu gura nituzke: etxebizitza, aparkalekuak eta itsasadarrek lur zingiratsuak. —**Ekologistakaz hainbatetan aurrez aurre egin duzu topo.**

—Gai hau nahiago nuke ez jorratu. Nik beti diot garrantzia emango diodala plentziar denari, baldin eta egiaz eta zintzo hiriaren ongizatea bilatzen badu. Hori da niretzat garrantzitsua. —**Galdera bihurria da, baina interesa ei dauka, zenbateko soldata daukazu?**

—Nire kudeaketa guztiagaz egiten dudan moduan, gardena naiz honetan ere: 2.594,44 eurokoa. Lehen nengoen enpresan baino gutxiago irabazten dut orain. Eta urteko igoera udaleko beste langileen berdina da %4,2. 8:00-15:00 ordutegia daukat, eta arratsaldero 2 orduz edo egunero etortzen naiz hona. Hau nire konpromiso pertsonala da. m

PLENTZIA

- **Biztanleak:** 4.200 inguru
- **Herriaren azalera:** 6,3 km koadro
- **Udala:** 11 zinegotzi. EAJ 7, Independentiek 2, EA 1, PP 1
- **Euskaldunak eta ia euskaldunak:** 2.500 (%60)
- **Erdaldunak:** 1.700 (%40)

SPL BAR ESPUELA
ITURRIBIDE
 BILBAO
 • PINTXO GORO-GOROAK 08
 • OSTEGUN KULTURALAK
 • ASTEBURUTAN MARTXOLA
 • TELEFONUA: 944150565
 • ITXURALDATURIK HATOR.
 ELKARTOKIA ETA GIRO DATORRA

JATEKO
 jateko
 • urdaitegia
 • frutadenda
 • elikagaiak
 Amezti 4 - TEL.: 94 491 06 54
 ALGORTA

Zure publizitatea hemen
 94 491 13 37



Zebrabideak

Ume, gazte, nagusi, dirudun zein langile... denak zutunik itxaroten. Batetik bestera igarotzeko, itxaron behar. Bestetik hona pasatzeko, zain egon behar. Lehenengo alde batera begiratu eta gero bestera. Autoak gelditu arte, gu lehenengo gelditu behar. Herritarraren betebeharra da. Bestela, pentsa dezakezue zebrabide bat baserri baten aurrean? Autoek aurrea hartu digute, baina gidari garenean konturatzen al gara?

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





[publizitatea]

GETXOKO LEKU IZENAK

Liburua eta Mapa

salgai

Getxoko leku izenak

Mikel Gorrotxategi Nieto
Sofia Suso Otxoa de Eribe

ARGITARATZAILEA : GETXOKO UDALA Euskara Zerbitzua

Gurea zinema

Iker Elorriaga

Hauxe duzue Iker Elorriaga argazkilariak helarazi digun irudia, espekulazioak artea azpiratu zuen egun batean egindakoa, hain zuzen ere: Algortako *Gurea* zinema zaharra eraitsi zuten egunean. Arretaz begiratuz gero zinemaren izena igartzen da oiholtza gaineko oihalean.



ALGORTA, 2002

Arantxa Urretabizkaia, hondarribitarturiko donostiarra, literaturarako denbora egarriz dabil. Idazteko tartetxo gura, eta ezin. Izan ere, intimitatean murgiltzea da, Urretabizkaiarentzat, literatura (betiko kontua: norentzat idazten da? Norberarentzat ala besteentzat?), eta hala islatzen da lantzean behin sortzen dituen lanetan. Baina talde lana, eta kazetaritzaren zurrumbilao, eta hemendik hara ibiltzea... horiek ere behar ditu Arantxak. Idazlearen ying eta yang-a dira.

Arantxa Urretabizkaia

Intimitate ariketak

Testua: **Unai Brea**

—Idazletzat daukazu zeure burua, kazetaritzat...?

—Nire burua etxeakoandre kazetaritzat daukat, eta tarteka liburu bat idazten dut. Horrela ikusten dut nire burua.

—Idazteko sena txikitatik ei datorkizu...

—Bai, baina txikitan gehiago zen amets bat. Nik txikitan pentsatzen nuen hori dohain bat zela. Gogoratzen naiz, eta hori inoiz kontatu izan dut, hamalau hamabost urte nituela erreztatu eta guzti egiten nuela hori gerta zedin, nik uste nuelako dohain bat zela. Eta badakit ez nituela hamabost urte baino gehiago izango, handik aurrera ez dudalako gehiago erreztatu.

—Bete egin zen errezua, nonbait...

—Bueno, gero ikasi dut ez dela dohain bat, gehiago daukala lanbidetik, ofiziotik, beste ezerretik baino, eta jardunean egiten dela bat idazle.

—Orduan, inspirazioa esaten zaion hori, zer da?

—Nik ez dut horretan gehiegi sinesten. Nik inguruan baditut izaeraz artistak diren pertsonak, baina nik ez daukat hori, nik gehiago daukat artisauarena. Niri ez dit bolada ematen eta inspirazioak harra-

patzen, lanean hasten naiz eta ahal dudana egiten dut, baina ez inspirazioa etorritan. Nire arazoa da daramadan bizimoduarekin ez daukadala apenas idazteko denborarik, baina denbora daukadanean lanera jartzen naiz, eta ez inspirazio eta ez ezer.

—Denbora falta diozu... Horren pena duzu?

“Ez dut inspirazioan gehiegi sinisten. Lanean hasten naiz eta ahal dudana egiten dut”

—Izugarrria. Gainera, beti ari naiz pentsatzen “Gabonetatik aurrera moldatuko naiz”, gero “Aste Santutik aurrera...” eta orain gutxi esan nion nire buruari “alperrik da, ez dut lortuko sekula behar adina denbora”. Nik, gainera, oso mantso egiten dut lana. Agian goiz osoa pasako dut lanean eta folio bat lortzen badut asko da.

—Eta zelan, ordenagailuz?

Bai, orain dela urte batzuetatik hona bai, ezinbestean.

—Eta lehenago, makinaz, eskuz...?

—Eskuz. Beti eskuz, Orain ere oharrak

eta gauzatxoak halaxe egiten ditut. Normalean, beti eramaten dut poltsan koarderno bat eta ideia bat idatzi egiten dut, bidean noala edo..

—Hainbestetan aipatzen den orri zuriaren edo, gaur egun, pantalla zuriaren aurreko beldur hori, zuk izan duzu inoiz?

—Ez. Bada denbora kazetari gisa nabile-

la, eta aspaldi galdu diot errespetua horri. Egiten da eta egiten da, besterik ez.

—Eta oraintxe zertan zabilta? Hortxe ikuste zaitugu, telebistan, *Firin-faran* saioan, baina hori lanbidea duzu?

—Bai, bai, lana da, bestela ez nuke egingo. Gero egunero egiten dut, astean bost aldiz, Radio Euskadin lana, 10etatik 11-etara saio batean parte hartzen dut, eta hori da nire lanbidea, hortxe dut nik nire dirua, bizitzeko dirua. Goizeko 6:30ean jaikitzen naiz eta 11etan bukatzen dut



horrekin. Baina 11etan, instantean, ezin naiz beste zerbait egiten hasi, tarte bat behar dut, burua garbitu behar dut, nire etxea ere bai (barre), umeari kontu egin eta gauza horiek, orduan ez dut harrapatzen bi orduko tarte bat... Nobela bat daukat esku artean, baina nik denbora dezente eta baldintza dezente behar ditut, bakardadea, ez eukitzea inor inguruan oihuka... Eta lasaitasun hori lortzea oso zaila da.

—Zure literatura nahiko barrura begirakoa da, ezta?

—Bai. Kazetaritza alderantzizkoa da, kanpora begirakoa, gertatzen dena kontatu. Berriz, literatura barrura begirakoa da, istorioa barruan dago, ez kanpoan. Hori

bai, nik uste dut, eta narratiba egiten dugun gehienok ere behintzat, badaukagula kalean, edozein gauzatan ari garela, elkarrizketa bat harrapatzeko joera, edo

“Ez zait interesatzen pertsonaiek zer egiten edo esaten duten, zer pentsatzen eta sentitzen duten baizik”

istorioak, edo... Baina bai, barrura begira. Niri, literatura egiten dudanean, ez zait hainbeste interesatzen pertsonaiek zer egiten edo esaten duten, gehien interesatzen zaidana da egin eta esan bitartean zer pentsatzen eta sentitzen duten. Horretatik gehienetan nire liburuek ez dute,

orain dela urte dezente, elkarrizketarik, iruditzen zaidalako elkarrizketaren esparrua ez dela, hain zuzen, literatura. Literaturak beste gauza bati begiratu behar dio. Nire irudipena izango da, ze liburu saltzaile batek esan zidan oso ideia txarra dela hori, irakurle askok liburua hartu eta erosi aurretik elkarrizketa dituen ala ez begiratzen dutelako, eta ez baditu ez dute erosten.

—Kazetaritzak eman dizu inoiz literaturarako istoriorik?

—Bai. Baina istorio bat hartu eta buruzeko gutxienez bi urte behar ditut, ez badira gehiago, eta nik badakit pertsona bakoitzak nobela bat daukala bere barruan, eta norbaitek atera behar diola, baina ez dit ematen gogoia edozein istoriotan bi urtean murgilduta ibiltzeko. Dena dela, egia da kazetaritzak lagundu egiten dizula jendea ezagutzen, eta hainbat jendeke istorio asko ditu.

—Urte asko daroazu euskal literaturan eta euskal komunikabideetan protagonista izaten. Zer deritzozu euskararen egoerari arlo horietan?

—Asko errepikatzen dudana irudi bat daukat, eta hoberik ez dut aurkitzen. Ez dut oso hausnarketa sakona, gorpuztua, eta ataletan-eta erakutsi daitekeena. Zentzu horretan, unibertsitatetik ni baino urrutiago ez dago ezer. Nik ondo ikusten dut, ni gaztea nintzenez ez zegoen gauza batengatik: belaunaldi askotako jendea

dabil gauzak egiten, eta uste dut hori oso gutxitan gertatu dela euskal literaturan. Horrek aberastasuna ematen du. Lehen edade bateko jendea izaten zen, gu hasi ginenean —ni 69an hasi nintzen kontu hauetan—, gazte izatea eta euskal literaturan egotea nobedadea zen. ^m



LAMIA BI ARROPA GARBITZEN, ATZEAN MAIATZA (1999)

Lamiakoko maskarada

Aurten 25 urte betetzen ditu Lamiakoko maskaradak. Urtero legez herriko kaleak hartuko dituzte maiatzeko akabuko asteburuan Marik, Galtzagorriek, Sugaarrek, Basajaunek eta abarrek. Argazkiotan azken urteotan Juan Gomez argazkilaria erandioztarrak pertsonaia berezi hauei Lamiakon egindako erretratu ederrak daukazue. Bestetik, esan behar dugu irudi hauek Antonio Herranz argazkilaria interneten ipini duen irudien banku batean aurkitu ditugula: www.tdi-imagesbank.com. Batez ere profesionali begira eratuta dagoen argazki funts honetan ederto sailkatutako 10.000 iruditik gora aurki daitezke.

Bisita bat egiten baduzu ez zaizu damutuko.



AKER (1999)



BASAJALIN (1999)



BASAJAUN, PRUDENTZIA ETA MAIATZA (1999)



IELTXU (1999)



SUGAAR (1999)



PRUDENTZIA (1999)



MAIATZA (1999)



LAMIA (1999)



MARI (1999)



GALTZAGORRI (2000)



LAMIA (1999)



GALTZAGORRI (1999)



INGUMA (1999)



gure posta elektronikoa berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

Udaleku irekiak euskaraz Algortan

5 eta 12 urte arteko haurrentzat



Non

J. B. Zabala ikastetxean. Instalazioak: patioa, jantokia, komunak eta bi gela

Ordutegia

Malgua izango da
Goizetan: 9etatik 9.30etara
Arratsaldetan: irteerak astean bi aldiz (astearte eta ostegunetan).

Datak

- 1. Txanda: ekainaren 21etik 25era
- 2. Txanda: ekainaren 28tik uztailaren 9ra
- 3. Txanda: uztailaren 12tik 23ra

Izena emateko epea

Maiatzaren 24tik ekainaren 4ra.

Prezioak

- 1.txanda (aste 1): bazkideek 37 euro eta ez bazkideek 50 euro.
- 2.eta 3.txanda (aste batekoa bakoitza): bazkideek 75 euro eta ez bazkideek 100 euro (txanda bakoitza).

Begiraleak

Bizarra Lepoan Euskara Elkartea ekainean eta uztailean antolatuko dituen udaleku irekietarako begiraleak behar ditu, ekainaren 21 eta uztailaren 23 artean. Begirale titulua baduzu, euskalduna bazara eta uda honetan lan egiteko prest bazaude jarri gurekin harremanetan.

Izena emateko

Maiatzaren 10etik Ekainaren 10era.
Arratsaldez, 16etatik 20ak arte.

BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEA

Itxasgane Etxea / Karitate kalea, 1 / 10. bulegoa / 48990 Algorta / 94 491 43 57 / bizarralepoan@euskalnet.net



Festimad-erako sarreren irabazleak

Jon Ruiz, Luz Lopez, Esti Arana, Iñaki Azkarraga,
Izaskun Garcia, Lukene Yurrebaso & Jabi Rodriguez

* Sarrerak eskuratzeko gure bulegora deitu goizez: 94 491 13 37



zineeskola

Oskar Fernández

maisua (I)
Stanley Kubrick

Stanley Kubrick zinema zuzendaria artikulatxo honen izenburua den "maisua" kategoriarren ordezkari ezin egokiagoa dugu. Zinemagintzak eman duen zuzendari bikainenetako bat dugu Kubrick. Berak egindako filmak ugari ez badira ere, eskubide osoz kokatu behar dugu izan diren zinemagile handien artean. Hamazazpi urte zituela argazkilaria lanerako kontratatu zuen Look aldizkariak, eta ospe handia lortu zuen bertan eginiko lanagatik. Hemeretzi urte zituela, baina, zinemak bereganatu zuen bere bihotza. Utzi egin zuen argazkigile lana eta bere indar, irudimen eta gogo osoa zinemari eman zikion. Orduan landatu zen haziak, denboraz, fruitu oparora eman zuen zinemagintzarako. Beste hainbat zinemagile bezala, film laburrak eginez hasi zen Kubrick: *Day of the fight* (1951) eta *Flying padre* (1951) *The seafarers* (1953). Lehenengo film luzea ere 1953an zuzendu zuen: *Fear and desire*. Bi urte geroago *Killer's kiss* zuzendu zuen. Gero, *The killing* edo "Lapurketa perfektua" (1956) filmaren barruan zeraman sormen eskerga azaleratzen hasi zen. Kubricken ezaugarri nagusiak nekaezintasuna, hobezintasun artistikoa, jeinutasuna eta zehaztasuna ziren, eta berehala hasi ziren dohainok lau haizeetara zabaltzen. 1957an atera zuen lehenengo maisu-lana: *Paths of glory* (1960), eta ondoren etorri ziren *Spartacus* (1960), *Lolita* (1962). Bere bigarren eskandalua izan zen film hau, *Paths of glory*-ren ostean. Gero, gerra hotz delakoaren kritika zorrotza egin zuen 1964ko *Dr. Strangelove or how I learned to stop worrying and love the bomb* filmaren bitartez. 1968 urtean beste maisu-lan bat zuzendu zuen, Kubricken ospea eta miresmena mundu osoan hedatu zuena betiko: *2001: A space odyssey*. 4

FANT zinemaldiak 10 urte

Erabat sendotuta dago Bilboko fantasiazko zinema erakustaldia

Maiatzaren 4tik 9ra egin den FANT 2004a zinema erakusketa honen hamargarren aldia izan da. Urte hauetan zehar izan duen harrera eta bilakaera hobeto ezagutzeko "Zinebi"-ko zuzendaria den Ernesto Del Rio gaz egon gara.

"Bilboko fantasiazko zinema erakustaldia" izenaz hasi zuen 1994. urtean bere ibilbidea proiektu honek. Beldurrezko filmak, komikiak eta abar gustoko zituzten lagun batzuen ekimena izan zen eta hasieratik arrakasta handia izan zuen; gaur ikusle leialak dituen erakustaldi sendoa

«Aurtengo edizioan Europako zinemari bultzada eman nahi izan zaio»

da. 2000. urtean, "Zinebi"-gaz batera, Bilboko Kultura saila hasi zen antolaketa beharrak egiten, eta orduan hartu zuen erakustaldiak FANT izena.

Estreinaldiak, zinema fantastikoaren maisuen lanak, filme zaharrak, film laburrak, haurrentzako filmak eta beste aurkezten ditu FANTek. Horrela, aurren, nontzeberri.com webgunek kulturarako antolatutako *Nontze-flash* izeneko animazio lehiaketaren irabazleen beharrak ere ikusteko



La maschera del demonio filmaren fotograma bat

aukera eskaini zuen.

Ernestok aitortu zuen legez, "egun, jende gazteari begira egindako zinemaldia da, baina datozen urteetan publiko zabalgora iristea dugu helburu. Ez da behar erraza izango, baina zinema fantastikoa jende guztiak ikus dezakeela erakutsi gura dugu".

Filmak aukeratzeko orduan aldaketak egiteko asmoa ere azaldu zigun Ernestok, "Europako zinemari merezi duen bultzada eman gura diogu; gaur egun, Asia eta AEBetako zinema dira nagusi, Europan egindakoa kalitate handikoa bada ere". m

Informazio gehiago: www.zinebi.com/fant

Ez galdu > "Dogville"

ZINEMA PARADISO • Non: Getxo Antzokia • Noiz: maiatzak 21, barikua • Ordua: 20:00



Lars Von Trier

Lars Von Trier-ek 2003ko urtean zuzendu zuen film bikain hau. Urte berean Europako zinemaren zuzendaririk hoberenaren saria lortu zuen Dinamarkako egile ospetsu honek. Bera izan da "Dogma" lan egiteko eredu edo zinema-korrontearen sortzailea. Cannes-eko Nazioarteko Zinemaldian aurkeztu zen lehenengoz eta kritikaren laudorio gehien lortu arren ez zuen inolako saririk lortu. Film erakargarri eta interesgarri honek Valladolideko zinemaldiari eman zion hasiera. Istorioren protagonista Nikole Kidman da: emakume ezin dotoreago honen atzetik gaizkile batzuk dabilta. Dogville deitutako herrira helduko da eta herriko jendeak laguntza emango dio, baina horren truke zerbait eskatuta. Emakumeak gizakiaren oneratasuna doan ez dela ikasiko du. Baina Gracek sekretu izugarria dauka berarekin eta herriko bizilagunek ezustekoren bat izango dute.



Argazki handian Zarauzko Delorean taldea, txikian Bilboko Atom Rhumba

Euskal taldeak Festimad-en

Maiatzaren 28 eta 29an Madrilen egingo da

Festimad jaialdiak mundu osoko abeslari, talde, artista, performer eta abarrak batuko ditu maiatzeko azken asteburuan, hilaren 28 eta 29an. Hamaika talde ezagun eta entzutetsuen artean euskal taldeak ere izango dira: Zea Mays, Atom Rhumba eta Delorean. Lehenengo biek barikuan joko dute, eta Delorean-ek zapatuan.

Aurtengo Festimad Mostoles hirian egingo da, Madriletik 20 bat km-ra, El Soto parkean, hain zuzen. 20.000 pertsonarentzako prestatutako jaiardia da, eta hala izan beharko, jaialdiko egitarauko izar handiak ikustera jen-

detza itzela hurbilduko baita. Beste hamaika abeslari eta talderen artean nabarmentzekoak dira hurrengo kontzertuak: Patti Smith, Ben Harper, Korn, Pixies, The Rasmus bezalako talde berriak... Beste hamaika talde, DJ, performer eta artista ere izango dira, guztira 70 ikuskizunetik gora. Sarrerak aldeztu aurretik erosiz gero, egunekoak 50 euro balio ditu eta egun biko bonoak 80 euro. Egunean bertan erosten dituenak 60 euro ordaindu beharko ditu eguneko sarrerarengatik, eta 90 euro egun biko bonoagatik. m

Informazioa: www.festimad.es

diskoak

Dbkatuak
Nok
Oinuka




Nok talde sortu berriak lehen diskoa plazaratu du. Etsaiak-en ibilitako Paul Erdozia bateria-jolea dugu abestiaren egilea eta talde berrirako lagunak bilatu dituena, Gipuzkoa, Nafarroa eta Kataluniakoak. "Punkia eta rock kañeroa" izenondorekin bataiatu dute emaitza. Erdoziak "zuzeneko indarra eta potentzia" jaso gura izan du lan honetan.

Musicology
Prince
Columbia Records



Hemen daukagu berriro gurean funk-aren jeinutxo. Musikari xelebre hau berpiztu egin zaigu hamarkada bat erdi-ilunpean egon ostean: bira bat iragarri (lehenengoa zazpi urtean), *Musicology* diskoa kaleratu (diskoetxe erraldoi batean), New Power Generation taldea batu (sasoi onenetan bezala), eta bere betiko izena berreskuratu du: Prince. Egin diezaiozun ongietorria.

Absent friends
The Divine Comedy
EMI



The Divine Comedy-n musikari asko egon dira urteetan zehar, baina taldeko indar eragilea eta kide nagusia Neil Hannon izan da beti. Orain The Divine Comedy-n Neil Hannon dabil bakar-bakarrik, eta bere garaian taldeari hainbeste sona eta ospea eman zizkion tankerara itzuli zaigu: abesti alaiak, orkestrazioak, koruek eta hitz ironikoez.

Diskoa >
Fjord taldea

Euskal talde ezagunetako partaidez osatutako taldea aurkeztu berri da, Fjord. Hardcore, metal eta rock esperimentalaren mugetan kokatzen den talde eta disko berria osatu dute Iban (Su Ta Gar), Juan (Ekon), Keu (Etsaiak) eta Mikel (Etsaiak) laukoteak. Otsail eta martxo bitartean kaleratu zuten taldearen izen bera daukan diskoa, Azkarateko Katarain estudioetatik. Gaztelupeko Hotsak diskoetxeagaz atera dute euren lehen lana, eta hurren datozen euren kontzertuak maiatzaren 29an Hazparden, eta ekainaren 12an Ondarrun izango dira. 12 eurotan jarri dute salgai aipatu dugun lan hau.

Ikasi >

Junkeraren asmoak

Euskal musika tresnen goi-mailako ikasketak sortzeko asmoa dutela adierazi du Kepa Junkerak. 2005-2006 ikasturtean eskainiko lirerateko ikasketak maila hauek Euskal Herriko Musika Goi-Eskolan, Musikenen. Kepa Junkera da Musikeneko koordinatzailea eta goi-mailako ikasketak hauen helburua txalaparta, trikitixa edota albokalako euskal musika tresna tradizionalan adituak izango diren musikari profesionalak sortzea litzateke. Musikene eskolak profesionalak trebatzen ditu azken urteotan: adibidez, 9 ikasle dabilta "musika tradizionalako bide berriak" ikasketak egiten.

esaterikbadut

Esti Ezkerra

Egunerokoa (XIX)

Zer pentsatua ematen duten kontuak

Bazterketa soziala zer den bere azalean sentitu duen Lydie Salvayrek (diktaduratik ihesi, Frantzia) erbesterratu ziren gurasoak Salvayre haur bat besterik ez zenean) ez da itzuli-ingurura ibiltzen. Argi eta garbi salatzen du bere azkeneko nobelan, "Passage à l'ennemie"-n, botere politikoak ezarritako kontrola zenbateraino jabetu den gure bizitzaz, publikoaz zein pribatuaz. Irribarra galduta barik (errealitatea terribleren izan arren, umorea ez dela galdu behar uste du idazleak), polizia batek gazte batzuk gaizkile hiri batean nola infiltratzen dituen kontatzen du aipatu liburuan, han zer gertatzen den jakin eta pixkanaka egoera kontrolatzen joateko. Alabaina, esperimenduak ez du espero bezain emaitza onik emango, eta itsu defendatzen zuen sistema nola hondatzen den ikusiko du poliziak.

Gizabanakoaren artean inkomunikazioa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta eragin korragoa izango da kontrola. Inkomunikazioaren eraginez, hitza oihu bihurtzen da, eta oihua isilasun, Mikel Laboaren kantuetan bezala. Gizabanakoa saiatu saiatzen da bere hitza entzunarazten; ez du arrakastarik, beraz, oihuka hasten da. Eta horrek ere ez duela funtzionatzen konprobatzen duenean, isildu egiten da, etsita.

Formula magikorik ez dagoen arren, azkenaldian inpresioa daukat botereak horrelako planteamenduak saldu nahi dizkigula. Paradoxa da, baina beraiek kontrola eta inkomunikazioa hedatu, eta haiek gainditzeko bideak zabaldu nahi dituzte. Horen adibide dugu Bartzelonan antolatuta duten Forum delakoa. Iragarki ponpoxo baten bidez, herrialdeen arteko elkarriketa eta ezagutza sustatuko duen makro-ekitaldia iragartzen hasi ziren duela egun batzuk. Eta, jakina, halako ikuskizuna jasotzeko, sekulako inbertsioa egin dute hiriaren inguru "kaltetu" batzuk konpontzeko. Baina hain dira memeloak, euren anbizioak hainbeste itsutzen ditu, ezen iragarki horretan bertan agerian utzi duten zein den beren benetako asmoa. Bartzelonako auzo "gatazkatsuekin" amaitu gura badute, esan dezatela argi eta garbi, baina ez ditzatela halako jaialdi diridirsuak erabili ekintza arras arbuigarriak kulturarekin estaltzeko. Politikariengandik ezin genezake besterik espero, beraz, ez nau hainbeste afektatzen. Baina mingarriena zera da: orain arte izugarri miresten nituen hainbat egilek Forum-ean parte hartuko dutela (gutxi batzuek soilik egin dute atzera). Horren aurrean, batek ez daki zer pentsatu. 4

Igela argitaletxea

Argitaletxe txiki baten ekarri handia

Zalaparta handirik sortu gabe sortu zen duela 16 urte Igela argitaletxea Iruñean. Bere argitalpenek ez dituzte egunkari azalak betetzen, ezta irritati zein telebisten arreta erakartzen. Eta pena da, sekulakoa baita sorkuntza unetik hona Igelak atera dituen lanen interesa eta kalitatea. Labur esanda: atzerriko literaturaren bitxiak topatuko ditu irakurleak argitaletxe horretan.

"1988ko udazkenean tolosarrez osaturiko hirukote bat bildu ginen Donostiako bazter-*auzo batean: kontua da argitaletxe bat sortzea bururatu zitzaigula*", azaldu dute arduradunek. "Dirua eskas, baina ausardia sobran

«Atzerriko literaturaren bitxiak topatuko ditu irakurleak Igelan»


zuen taldetxo (Xabier Olarrak, Joseba Urteagak eta Jose Manuel Gonzalezek osatua) 1989ko apirilaren 14an Iruñean bildu zen, eta *Igela argitaletxeari elkarre mugatuaren lege-irudia eman zion. Mugarik ez zen falta, beraz. Are gutxiago asmo eta ametsik*". Urte hartako abenduan kaleratu zituzten lehenbiziko bi liburuak, Horace MacCoyren *Zaldiak akatzen digu ba...* eta Arthur Conan Doyleren *Zirriborro eskarlata*, Sail beltza eta

Enigma izeneko bildumei hasiera emateko, hurrenez hurren. Urte berean, Literatura sailari ekin zioten (Céline, Capote, Ford Madox Ford, Hemingway, Patricia Highsmith, Natalia Ginzburg, Annie Ernaux zein Sandor Marai bezalako autoreen lanak bildu dituzte bertan), eta gerora beste sail bi ireki zituzten: Mintaka eta Gabonetako ipuinak.

"*Igela argitaletxearen ezaugarriak nabarmena mundu osoko literatura obrarik esanguratsuenetako batzuk hautatu, eta haien itzulpenak kaleratzea da. Eta horixe egin dugu gaur arteko ibilbidean: berrogeita hamar titulu inguru euskararen ondarena ekarri*", diote argitaletxe arduradunek. Sandor Marairen *Eszterren ondarea*, Annie Ernauxen *Lekua* eta Gertakizuna, eta Amélie Nothomben *Durduzaz eta dardaraz* dira Iruñeako argitaletxeak plazaratu dituen azken lanak.

Igelak daukan helbide elektronikoa (www.igela.com), nobedadeak, orain arte argitaletxeak kaleraturiko liburuei buruzko informazioa, kritikak zein irakurketa gida bat (besteak beste, R. L. Stevenson, Raymond Chandler, Jack London eta Dashiell Hammettek idatzirikko liburuetako pasarteak jeisiteko aukera ematen du) aurkituko dituzue. Azken hori irakasleei zuzendurik dago batak bat. m

liburuak



Poeta New Yorken
F. Garcia Lorca
Erein

27ko belaunaldiko idazlerik ospetsuenaren *Poeta en Nueva York* poema bilduma euskaraz irakur dezakegu Juan Luis Zabalak egin duen itzulpenari esker. Poemok New Yorken idatzi zituen Lorcak 1929-1930 urteetan, eta bertan surrealismoaren bidetik hirizarren alianazioa azaltzen du.



Gerlari zuria
Joanes Urkixo
Elkar

Abenturazko eleberriz bizi-bizi honek Fionn gerlari gaztearen istorioa kontatzen digu: ezpata magiko batek bera aukeratu du irlandarren errege, baina klanen arteko borroka eta bere harrokeriak hondamendia ekarriko dute. Deserrirako bidea hartu eta Urdaibaiko itsasadarera helduko da.

Telebista >

Euskaraz eta internetez

Proyección ekoiztetxe bilbotarrak bost kanal dituen euskarazko telebista jarri du sarean doan

Sareko lehenengo euskal telebista ipini du martxan Proyección ekoiztetxe bilbotarrak. Pasa den irail aldera hasi zuen ibilbidea internet bidez zabaltzen den euskarazko telebistak. www.euskaraz.tv da helbidea eta doan eskura daitekeen zerbitzua da.

Oraindik ez du zuzeneko emanaldirik eskaintzen; hala ere dituen bost kanaletan ikuskizun, hitzaldi edota albisteen edukiak oso-osorik igortzen dituzte. Esan legez, bost dira kateak: Hitzaldia, Albisteak, Turismo erreportaiak, Expo-art (erakusketak) eta Zabalik (Erakunde eta enpresen ekitaldien in-

«Hitzaldiak, albisteak, turismo erreportajeak, Expo-art erakusketak...»

formazioa, agenda, prentsa-oharrak...). Azken kate hau, ohiko publizitate iturriakaz batera da euskaraz.tv-k duen diru iturri bakarra, hau da, erakundeek eta enpresek beren jarduerak Zabalik-en iragartzeko ordaindu behar duten zenbatekoa.

Proyección ekoiztetxea 1990ean sortu zen, telebista programak ekoizteko helburuz. 2001ean Proyeccion.tv erderazko internet bidezko telebista sortu zuen, eta 2004. honetan martxan da euskarazkoa.



www.euskaraz.tv

Euskaraz.tv ikusi ahal izateko interneterako konexioa, gutxienez Pentium II ordenagailua eta Real Video programa behar dira. Azken programa informatiko hau ez daukan erabiltzaileak euskaraz.tv helbidetik jaitsi dezake. Beraz, internet bidezko lehen telebista euskalduna jaio berri da, eta berori eskuratzea doakoa da. m

Telebista >

Europa euskaraz

Europa euskaraz saioa eskaintzen hasi dira ETB-1en. Europako hainbat hiri eta herrialde ezagutzeko aukera ematen du saioak, euskaldunen eskutik eta euskaraz gainera. Orio Produktzioak ekoiztetxeak egindako ekoizpena da, eta sei bat kapitulu eskainiko dira. Jon Plazaola aurkezle gazteak gidatzen du saioa, eta bere eskutik Amsterdam, Berlin, Lisboa, Dublin edo Praga bezalako hiri eta herrialdeak bisitatzeko eta ezagutzeko aukera izango du ikusentzuleak. Horrez gain, herrialde horietan bizi edo egonaldian dauden euskaldunak elkarriketatuko dituzte, euren eskutik herria hobeto ezagutzeko eta bitxikerien berri eman ahal izateko. Esan dugun legez, sei dira oraingoz grabatu dituzten kapituluak, baina baliteke gehiago ere ekoiztea. Beraz, Europako zenbait hiriburu euskaldun batzuen ikuspegitik zelakoak diren ezagutzeko aukera ematen du saioak.



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu
94 491 13 37

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Arnedi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

- Getxo Irratia87.6
- Radio Euskadi92.4
- Euskadi Gaztea94.7
- Bilbo Hiria Irratia96.0
- Tas-Tas Irratia97.0
- eitb irratia100.1
- Bizkaia Irratia102.6
- Koska Irratia104.1
- Euskadi Irratia104.4
- Pititako Irratia107.0
- Gorliz Irratia107.8

Egunkariak
prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algotako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioba

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure
autoaren
garbiketetan!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

× Tendinitis Esgintzeak
× Erreuma × Kiroleko

deitzen duen
lehenengoak
masai bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPEL 17 67

Kafe ANTZOKIA
Sarrerak
debalde!

20 osteguna: SUSANA SEIVANE
2 sarrera / 22:00

27 osteguna: AFRIKA ENTZUN
2 sarrera / 22:00

94 49113 37

Kafe Antzokiak
antolatutako ekitaldietarako sarrerak lor ditzakezu.
UK-ra deitu eta kitto.

[sarean]

Euskal telendro txapelaldun!

Estatuko webgune askoren artean, euskaldun batenak **irabazi du** ondoko txapelketa bitxia

Orain dela aste batzuk inork ez zekien zer zen 'telendro' bat. Orain, Google-n bilatuz gero, milaka erantzun jasoko dituzu. Zer gertatu da hain epe laburrean horrenbeste jende 'telendro'-ez berba egiten hasteko? Zer da 'telendro' bedein-katua? Erantzuna erraza da: 'telendro' ez da ezer. Esan nahi gabeko hitza dugu 'telendro'. Beraz, zertan dabilta ehundaka lagun hainbat webgune sortuz 'telendro' delako horri buruz? Askotan bezala, txapelketa bat baino ez da.

Google-n bilaketa bat egiten dugunean, lortutako milaka erantzunen artean, bilatzaile horrek hoberenak lehenengo postuetan jarriko dizkigu. Hor goian kokatuta egotea zaila da, eta hainbat trikimailu (legezkoak eta ez-legezkoak) sortu dira norberak sortutako webgune-

ak lehenengo postu preziatu horietara igotzeko. Hortan datza 'telendro' txapelketa: webgune bat sortu eta 'telendro' hitza bilatzerakoan lehen postua eskuratzeko. Horregatik bete da internet 'telendro' egun batetik bestera ;-)

Txapelketak iraila arte iraungo du, baina banatu da saritxo bat norgehiagokaren hasieran lehengo postua lortu duenarentzat: euskal 'telendro' bat! Izenez Luis Fernandez, aurki.com bilatzailearen barnean sortutako web orriaren egilea. Zaila izango da irailan euskaraz egindako webgune batek txapelketaren buruko postuan jarraitzea, baina nork daki? Agian gure webguneetan aurki.com/telendro-rako estekak jarriko bagenu...m

Leihaketaren berri: google.dirson.com

webgida

STANFORD ESPERIMENTUA

Sarean aurkitu ditugu > Denetarik



Ur Apalategi > idazlea

“Euskal idazleok zorte handia dugu, gizarte erdi mutu baten aktoreak garelako”



Algortan bisitari eduki genuen Apalategi, maiatzaren 4an

Iparra Galdu Gabe jardunaldiak zirela-eta eduki genuen **Getxon Ur Apalategi** idazle lapurtarra. Hegoaldeko amak **Parisen munduratutako gazte honek ere ez du iparra galtzen: argi dauka Iparralde-Hegoalde eta antzeko izendapenak baztertu egin beharko genituzkeela. Beste gauza batzuk ere argi ditu, hautsak harrotzen dabilen beraren azken (eta oraingo, bigarren) eleberriak, **Gure Gauzak S.A.-k**, erakutsi duenez.**

—Iparra Galdu Gabe jardunaldietara etorri zara. Iparralde eta Hegoaldearen artean eten handia dago?

—Bai eta ez. Ekitaldi honetan parte hartzea onartu dut, batez ere antolatzaileak adiskide ditudalako, baina ni ez nago erabat gustura horrelako hitzekin: Iparralde, Hegoalde... Uste dut egoera pixka bat konplexuagoa dela. Nire hitzaldiaren gaia Iparraldeko literaturaren egoera da, baina hain zuzen noa hori guztia hankaz gora jartzera, uste dudalako gehiago hitz egin beharko genukeela

gune eta periferiaz. Dena dela, galderari zehatz-mehatz erantzuteko, uste dut bada-goela gure arteko deszagutza handia, eta neurri batean uste dut logikoa eta beharbada positiboa ere badela, esan nahi duelako euskaraz bizi duguna nahiko aberatsa eta zabala dela, tokian tokiko gauzak ez ezagutzeko denborarik ez izateko adina.

—**Gure gauzak S.A.** eleberria argitaratu berri duzu. Zein da gaia?

—*Thriller* bat da, eukal mundutxo literarioan kokatutakoa. Badu alde satirikoa, bertan

agertzen diren egiazko pertsonaiak karikaturara gisa agertzen dira, eta bestetik *thriller*a da, misterio batekin. *Thriller*a gauza ilunen azterketa bat da, eta alde iluna, hemen, euskal kultur industriaren alde iluna da.

—**Hautsak harrotzen dabil liburua...**

—Nahiko polemikoa da, bai. Sekulako zailtasunak izan ditu argitaratua izateko bere gaiagatik. Deskribatu egin dut nola azken hamarkadetan argitaletxe bat handitu den beste guztiak bere menpe edukiteraino —nahiz eta ofizialki inork ez duen esaten—, eta nola, azken batean, kultur monopolio batera iristen ari garen.

«**Nire azken nobelak euskal kultur industriaren alde iluna erakusten du**»

—Orain sei urte egin zizuten elkarrizketa baten titularrak: “Euskal literatura gutxi mintzatu da errealitateaz”. Hala uste duzu oraindik?

—Bai. Eta uste dut zortea dugula euskal idazleok, gizarte erdi mutu baten aktoreak garelako. Gauza asko esan dezakegu errepikatutako gabe.

—Euskal idazle gazteak modan daude. Zuk, hala ere, aurrera egiteko zailtasunak daukatela diozu, **Atxagaz** geroztik...

—Bai, baina dena da erlatiboa. Atxagaren belaunaldiaren ondotik beste bi belaunaldi azaldu dira gutxienez. Azken hilabeteotan, prentsa bitartez, horri buruzko eztabaida bat egon da; batzuek diote etsipenaren belaunaldi bat dagoela, ni baino zaharxeagoak direnak, **Atxaga** eta gaurko gazteen artean. Uste dut guk, azkenok, zorte gehiago izan dugula, eta beharbada estalita gelditu dena tarteko hori izan dela. Dena dela, kalitatea dago bietan, eta baita estalitako horretan ere: hori daude Xabier Montoia, Aingeru Epaltza... m

Berangoko **Pedro Agirremota**

“Alabak batua daki eta horretan ez gare arreglaten”



Argazkian, Pedro Agirremota bere etxeko atarian

Berangoko Etxebarri baserrian hartu gintuen Pedro Agirremotak maiatzean eduki ditugun egun euritsu eta hotz horietako batean. 85 urte dauzka Pedrok eta paseoan ibiltzen da goizetan, egun honetan, baina, ez zuen eguraldia lagun. Beste barik, euskararen gainean hasi ginen berbetan; hona hemen berbete horren zatitxu bat.

—Alabek batua daki, horretan ez gare arreglaten ondo, berak batua ta nik hemeko, atziñeko, ta diferentzi beti dau apur bet. Horrek batuak duztik daki ta guk atziñeko eiten du. Niri giau gustate dat atziñeko. Ni gerran giputzekaz ibil nintzen, Santoñati eta horti ibilte gintzesan ta entenditze gintzen ondo. Nafarrak hobeto ondiño, giputzek Bermeokokaz txarto. Gernikekoaz ondo arreglate gintzen gu, eh? Ta batua ya... alabeaz; baia segidun segidun berban ez eoteko ze...
—Galduko da bertoko euskara?

—Asko galdu da; ze atziñe gure aitek ta amak eta danak euskera duzti eiteuren; erdera batek bez, askok yakin bez erdera. Gero gerra osten hasi zan ya ordun erdera sartzen gihau, gerra arten euskera duzti.
—Algortan, Leioan, Sopelan... ere euskara zen nagusi?
—Sopelan gitzi eiten da euskera, gerra baño lelau bere gitzi eiten zan, han goien. Horrek erdera eiteuren gehienak. Algortan erdera dana; oin bere gitzi eiten da euskera; ordun bapez. Eurok gu baño giau direlako; gu yoten gintzen igual tzi-

kito batzuk hartzen hara, ta esateuren: “hemen datoz aldeanuk”. Algortakok beti ixen dire Areatakok baño giau. Sopelan igual pasaten zan, goikok bekok baño giau, Larrabasterrakok ezebez. Leioa beti euskera; leioaztarrak Berangora asko etorten ziren ordun ta danak euskera eiteuren.

“Sopelan igual pasaten zan, goikok bekok baño giau, Larrabasterrakok ezebez”

—Zertan egin zenuen behar?
—Taillerra Larrabasterran auki neun, beste bateaz. Ta handik beharreti etorri ta gero solon. Hemen lau milla metro dekoaz, oiñ beste batzuk dabilz aprobeztaten ha, ze ni hara gora enoa. Nik bedarrak ebagi, hori eiten neun ze nik yasten eneban yakin; nik kodaiñaz ebagi bedarrak, ekarri kortara ta kortan itzi. Obratan be ibil nintzen, Labastidan urte bi kasi ein neuzen, Durangon be asko. Atziñe teillatuk bere arotzak eiten zeun, baie gaur ez da arotzarik horretako, albañilak eiten du duzti. Kanteran be ein dot beharra.
—Laurogei eta bost urte dituzu, zer egiten duzu egunero?
—Gaur denpora txarra dau baie denpora ona danean horti ibiltzen yoten naz. Udaberri txarra! Udaberri ez, negu da hau! Aurten udaberririk ez dau; apirille txarra ta maiatza be txarra dator. Nik ointxe dekot medikuk esanta, holan hotza handie ta bero handie danen ez urteteko kanpora, barrun eoteko. Paseon horti ibiltzen naz, Berangoti; Galeara arten enaz aillegaten; lehen bastante asau yote nintzen, Gorrondotzara arten kasi yote nintzen; baie aurten ya kansa ein naz, urtek gora doaz. m

Esakere “Min gitxi eta trapu asko”



Zer esaten dogu domeka goiz baten morroi bet ikusten badogu markako biziklete barri-barriez, aleaziñokoa, markako mallotagaz, markako culotteagaz aldazgora baten kostata doala, eta halau baten txispak botaten pasaten badotzo ganorabako batek, kasik ugerrak yanta daun bizikleta zahar baten eta fraka bakerukez yantzite? Zer datorru burure? “Batzuk itxure bai asko baia behar dana gitxi” ezta? Hori ikusten dogu, bai, sarri: *min gitxi eta trapu asko!*

(Gotzon Garatek baturiko esakera dozue hau. Beran “Atsotitzak” behar handian topako dozue, liburukian edo interneten).

Gurberbake

BERBA JATOR BATZUK (VIII)

Testua: **Xabi Bilbao**

Berbakere 30en eta 34en izenondo edo adjektibo batzuk ikusi genduzen, gure parajeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) –Zelako(ak)– direzen esateko erabilten direzenak. Gaur horregaz kontugez segiduko dogu apur bet. Hemen doaz, ba, beste izenondo batzuk:

- **estimadu** (edo **estimedu**): zéozar edo nónor balío handiko dala esateko erabilten da. —*Ondo estimedu dogu guk zure txóko, zénbet bázkalondo eder in dogúzen bertan!*
Aditz eran bere erabilten da sarri (**estíma, estímaten, estímako**), gauza bera adierazoteko: —*Atléin harmarri pinta dotzet áutoko aten, baia ez daust lar estíma!*
- **etzezulo**: beti etxen egon gure dauneri esaten dako. —*Háik etzezulo itzélak dírez, kapaz dírez zapátu ta doméke osorik etzetik urten barik égoteko.*
- **ezetuko, ezune**: norberak edo jente askok ezetuten (ezagutzen) dauneri esaten dako. —*Ezune da hori aktore, baia oiñ enaz akórdaten zélan dékon uzena.*
—*Hori neske Andóniez dóana ezetuko dekot nik bere, hemen ingirun bixi da.*
- **fanfarroi**: harrokeriez dabíllenari geitzen dako holan. —*Ha MacEnroe tenista ona ixen zan, baia lar fanfarroia: ez eun yakin gáltzen!*
- **fin, fiñe**: gauzan ganera berba egikeran, estu dan gauzeri esaten dako, firuri (hariari) edo kordelari (sokari), kasu baterako: —*Hori baño kordel fiñau bérkozu hortik zulótik pásateko.*
Personen ganera berba egikeran bere sarri erabilten da, aitetuten dogun hori lanen edo portakeran ona dala esateko: —*Ikasle fiñe dozu hori gero! Ixil-ixilik librutxun aitu eta berak bákarrik atara dau matemátikako probléme.*



zure
dirulaguntza
behar-beharrezkoa
dugu

aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

dirulaguntzak

Boluntzarreta
BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezi 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48900 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

ALBEkumeak

“Kantatzera nihoa...”

San Nikolas Ikastolan hiru talde ditugu, eta oraingoan 5. maila B-ko ikasleak ditugu berbagai. Alai eta irribarretsu ikusten ditugu argazkian, betiko legez. Nahiz eta erretolika izugarria bota, eurak beti barreka, eta azkenean kutsatu egiten zaituzte. Ikasle apartak!

Testua: Nahikari Ayo / Argazkia: A. Mentxaka

Ikasturte hasieran Olga andereñoa eta biok borrokan ibiltzen ginen ea martxan jartzen ote genituen ikasleak, eta badirudi hilabeteak pasa ahala berotu dituztela motorrak. Ez ziren gogotsu hasi eskolekin. Bertsolaritza ez zen ezaguna eurentzat eta onartzen dut hasieran zaila dela. Inori ez zaigu burua nekatzea gustatzen eta bertsolaritzan gehien bat horixe egin behar da.

Batzuk oinak topatu ezinik ibiltzen dira, silabak faltan edo soberan izaten dira,... Abesteko orduan pasatzen dugu hobetoen. Ene, zelako nahaste-borrastea daukaten doinuekin! “Joe, nola zen doinua? Kantatzera nihoa... Jo, ez zait ateratzen! Ahaztu zait. Maritxu nora zoaz erabili dezaket?”. Gela honetan ez dakit zer egin beharko dugun



San Nikolas 5. B-ko bertsolaritza-taldea

doinuak ikasteko! Ai, ama! Horren kontura barre asko egiten dugu. Batzuk etsitu egiten dira: “Baina beti abesten dugu doinu berekin! Nola ez duzu gogoratuko ba?”.

5. maila B-ko ikasleak errepikaezinak dira. Bertsotan polito moldatzen dira. Baten batek maitasunezko bertsoen bat ere jaso

du; ez goaz izena esatera, bestela gorrituko zaigu eta. Bertsoek ligatzeko ere balio dute eta batzuek praktikan jarri dute. Ez dakigu bikote berri bat sortu ote den ikastolan. Bertso eder eta samurrik entzuten baduzue ikastolako pasabideetan, laster jakingo duzue nortzuk diren! m

«...doinu berria ahaztu zait. Maritxu nora zoaz erabil dezaket?»

ALBEko gaztetxoak



Haizka Navas

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Nola uztartzen dira bertsoa eta dantza, galdera hori benetan ez al da ba txantxa. Bien artean badau jarrita balantza ta balantza gainean, berriz, konfiantza.

Lau oinak emanda

Nire dantza taldea horixe Agurra, halere bertsoakaz bada be egurra. Baina txarto egiteaz badaukat beldurra, gauza guztietan lortu behar baita gailurra.

Azken puntua emanda

Zahar hasita gauza mordo ezin dira ez atara ta lan hobea egiten dugu denok, gazteak bagara. Horrexegatik, hau dela eta esango dizuet, hara: zenbat eta gazteago hasi askoz hobe izaten da.

bizkaiko ikastolen aldeko jaia

ibilaldia

maiatzaren
30ean

leioan

alkarregaz
heldu



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Txibiak babekin

Orain da baba bigunen garaia eta baita txibiak (edo potak) arrantzatzeak ere. Zer hobe jaki goxo bi hauek plater berean elkartzea baino? Hasteko, majestikean berakatz aleak oliba-oliotan urreztatu. Olio berean irinetik pasatutako txibia zatiak apur bat frijitu, gero baztertu. Barazkiak *broumousse* erara txikitu (hau da, zati oso txikitan) eta olio horretan su ezian bigundu arte mantendu. Gero lehen frijitutako txibia, basobete koñiak eta arrain salda apur bat gehitu. Majestikaren tapa itxi. Bost-hamar minutuan eginda egongo da. Txibiak atzera baztertu-ko ditugu orduan, eta geratzen zaigun salta hori txinotik pasatu eta gero, alde zurretik ur beroarekin nahastutako tintarekin elkartu. Bestetik, babak egosi. Amaitzeko, dena (hau da, baba egosiak, salta eta txibia) lapiko batean elkartu. Kitto. Plater hau dadotan zatitutako pata frijituarekin ederto lagundu daiteke. On egin! ^m

osagaiak

kilo bat txibia edo pota • hiru tipula gorri • lau berakatz ale • piper gorri bi • porru bat • koñiaka • baba bigunak



itsaso arana / jolastoki-koa

Zahartzeko mahatsak

Mahatsak, egurretan ondo zahartu ahal izateko, nortasuna, egitura eta oxidazio geldoa behar ditu, upelak trasiagoetan oxidazio prozesua azkartzen duelako.

Mahatsik egokienak


Beltzetan, eduki taniko handia dutenak dira egokienak; zurietan berriz, nobleenak eta ez oso aromatikoak.

- **Beltzak:** *cabernet sauvignon, merlot, syrah, cabernet franc, pinot noir* eta *tempranillo*.
- **Zuriak:** *chardonnay, sauvignon blanc, viura* eta *verdejo*.

Txarrenak


Galiziako *treixadura* eta *albariño* ospetsuak ez dira haritzarekin ondo egokitzen. Arrazoia sinplea da: euren fruta eta lore aromak egurrarekin urritu egiten dira, eta gainera, egurraren konplexutasunak ez ditu ordezkatzeten. Andaluziako *pedro ximenez, zalema* eta *palatino* ere ez dira bat ere egokiak. ^m

Argazkietan, *cabernet franc, chardonnay* eta *verdejo* mahatsak



Getxoko batzokia

Aukera zabala betiko euskal sukaldaritzan oinarrituta



Argazkian, Joseba Gorroño

Eskaintza zabala aurkezten duen jatetxea dugu Getxoko batzokia. Bada, aste-gunetan menu merkeak prestatzen dituzte, hiru lehenengo plater eta beste hiru bigarren platergaz. Zapatu eta domeketan, osteran, menu berezia har daiteke bazkaltzeko; eta bariku eta zapatu gauetan karta eskaintzen dute. Hori guztia Patricia egiten duen betiko sukaldaritzan oinarri hartuta. Horrez gain, enkar-gua eginez gero, itsaski-jana hartzeko edo eta astegunetan afaltzeko aukera ere ematen dute.

Orain dela urte eta erdi hartu zuten jatetxea, eta arduraduna den Joseba Go-

rronok esan zigun moduan, orain arte jasotako harrera oso ona izan da. Udan harragi eta arrain parrilladak prestatzeko asmoa ere azaldu zuen.

Bestalde, astean zehar zenbait pintxo egiten badituzte ere, asteakabuetan daukate eskaintza zabalena, orduan pintxo gozoak, magurioak, nekora eta abar prestatzen dituzte-eta. Eta eguraldia lagun bada, hainbat jende biltzen da, paseotik bueltan ahora mokadutxu bat eroan guran. Terraza zabala daukate egun horietarako. Azkenik, batzokietan gertatu ohi den legez, honetan ere, arratsaldeetan, mus partidak dira nagusi. ^m

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea
RESTAURANTE NORTE
adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen
Bilbo-Plentzia errepeidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

SATISTEGI
C.F.F.A.E.
ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!
BASAGOITI ETORBIDEA 51 ALGORTA



aldizkaria
etxean
jaso nahi
baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / Amezti 6, 4. solairua 5.
bulegoa / 48990 Getxo / ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31 / bulego ordutegia: 08:00 / 15:00

zure
publizitatea
hemen
94 491 13 37

ITXASGANE
 prentsa ¥ aldizkariak
 GETXOKO KIROL PORTUA
 Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
 ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
 T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO
 altzariak
 dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11 AREETA T.: 94 464 89 94
 Juan Bautista Zabala, 5 ALGORTA T.: 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
 Espezialitateen karta
 Giro atsegina

T: 430 43 33
 Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Hotza egiten duenean kexu, eta beroa egiten duenean ere bai. Zer behar duzu gustura egoteko, <i>Ura?</i> Gainera haserretzen zarenan gauza asko esaten dituzu. Hobe duzu bi aldiz pentsatu, bestela damutu egingo zara.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Egunak joan eta egunak etorri beti gauza bera egiteaz aspertuta zaude; abentura berriak izateko gogoz zaude, ezta? Orain arte diruz urri ibili zaren arren, laster gauzak erabat aldatuko dira; alde horretatik, garai onak datoz.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Telefonoaren faktura ikusteak beldurtuta geratu zara; hainbeste berba egin aurretik pentsatu behar zenuen. Haserretzeko arrazoiak zenituen arren, hainbeste denbora berba egin barik egotea ez al da gehiegi?</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Gauean telebista ikusten ordu txikiak arte gelditzen zara; horren lo gutxi egin da, zelan joaten zara lanera, <i>Aitzurra?</i> Erabat nazkatuta zaude, eta alde egiteko gogo ikaragarria daukazu; apur bat itxaroneraz gero, gauzak hobetuko dira.</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Komeni zaienean bakarrik deitzen dituzte, baina zer uste dute? Ez utzi haiek gura duten guztia egiten. Hainbeste denbora elkar ikusi barik egon ostean, ez dakizu zer esango diozun; hori aurretik pentsatzea zaila da.</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zeure arazoak nahikoa daukazu; besteetaz kezkatzen hasten bazara, zoratuko zara. Lagunak ados ez egon arren, zuri halako bitxikeriak gustatzen bazaizkizu, segi aurrera!</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Negar egiteko gogoa daukazula? Zergatik ez duzu, bada, egin behar? Ona dela diote. Exean bizi zinenean gurasoengatik kezkatzen zinen; orain, bakarrik bizi zarela, hobeto al zaude, <i>Garia?</i></p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Larregi berba egiten duzu, eta besteei ez diezu ahoa irekitzeko aukerarik ematen ere; azkenean nazkatu egingo dira. Sukaldaritza ez zaizu batere gustatzen; hala ere, lehenago edo geroago ikasi beharra daukazu.</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Irakurtzea gustatzen zaizu, baina gustuko ez duzun liburu mardulen bat hartuz gero, ezin amaituta ibiltzen zara. Zu zoriontsu zauden aldi guztietan, zerbait arraroa gertatzen da inguruan; beti hala ete da?</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Aste Santuko oportretatik itzuli zinenetik ia hilabete igaro da, eta oraindik oroimenez zabilta; ondo pasa zenuen, ezta? Ba lasai hartu, hurrengo oporraldia oraindik urrun daukazu-eta.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Ondo ez egon arren, hasieran ez zenion garrantzirik eman; sendatzen ez zarenez, medikuarengana joan beharko zenutke. Ahoa irekitzen duzun bakoitzean jende guztia barrez lehertzen da; ez dakizu serio egotea zer den.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Oraindik loteria irabaziko duzula uste duzu? Ai, koitadua! Hobe duzu beste diru iturriren bat bilatu. Azkenaldian gauza arraroak egiten zabilta, eta inguruko denak harrituta daukazu. Zer ezkututzen duzu, <i>Negua?</i></p>


mungia
 OKINdegia



Algortan badaukagu
 artisauen ogia
 izen eta jatorriz
 da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
 obispoen guleria
 probatu bada edo ez
 dan benetako egia.


KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
 ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Mintzaidea, berbalaguna. 2. Arbasoa. Noka, naiz. 3. Ez du ikusten. Alokairua, alogera. 4. Gogorak. Atzizkia. 5. Sumendiaren ahoa. Potasioa. 6. Kanpo. Ukapena. Bizkaieraz, omen. 7. Seta. Izaki txiki bakun, hainbat eritasunen sortzailer. 8. Bokala. Lehen bokala. Baldintza partikula. Ardi, hitz elkarketan. 9. Nekatu, unatu. Kasik. 10. Baserritarrak ez direnak.

Goitik behera

1. Saillkapenaren arabera ordenatuak. 2. Eguzki-tarte. Dago. 3. Lasto, hitz elkarketan. Posta adierazten duen ingeles hitza. 4. Agorrila. Suari dario. 5. Atzizki femeninoa. Euskaraz eta kito!. Bi ken bat. 6. Potasioa. Akrobaziak egiten dituen. 7. ... egina, total egina. Italiako telebista. H2O. 8. Du. Egiptoko jainko. Röntgen. 9. Europako diru. Zeruko ura. 10. Anarkoak.

Soluzioak



asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- New York-eko semea da
- *Transformer* izena du berak aspaldian egindako lan batek
- Gitarrarekin oso ondo moldatzen da

> Aurrekoaren erantzuna: Jupp Heynckes

> Irabazlea: ***Amaia Arriaga**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean Argia astekariaren opari sorta ederra zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48998 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru hilabeteko harpidetza doan



• 1500. urteko Europako maparen lamina

www.argia.com



ELISABETH SAN MARTINEK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Bidegorri akademia, 1957

Hona hemen Bidegorri akademiako ikasle gazte batzuk, umore onez gainezka, ezkontza bat edo antzeko zerbait antzetzten: irakasle bat andraz jantzita, maiteminduen lore-sortak aza baten itxura du, eta txarteltxoan haxe irakurri ahal da: *Abogados*. Ziur gaude inauteriak ez zirela: Franco artean bizi-bizirik zegoen eta inauteriak debekatuta zeuzkan. Ikasleek antolatutako jaien bat edo ikasturte amaierako ospakizuna izan daiteke argazkiakoa.

Bidegorri akademia gaur egun *Argi* haur jantzien denda eta mertzeria dagoen toki berean zegoen, Algortako Martikoena kalearen 13 zenbakian, polizia nazionalaren egoitza zaharraren aurrean. Gutxi gorabehera 1965 urtera arte iraun zuen akademia honek zabalik leku horretan. m

Zutunik: Paternain, Acebo, Rasines, Goiri, ?. / **Makurtuta:** Garaizar, Dominguez.



gure posta elektronikoko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

EDUARDO ITURRALDE GONZALEZ > futbol epailea

“Kubara joango naiz Fidel Castroren hiletara”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan bakarrik.

Izaera handia (Emazteak esanda).

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Charles Bukowski da nire idazlerik gogokoena, eta dena gustatzen zait: *Hijo de Satanás, Pulp...* Errealista da, batzuetan gehiegi.

Eta zein pertsonaia antzetzuko zenuke film batean?

Vito Corleone. Ez dut inoiz pelikula bat bi aldiz ikusten, baina *El Padrino* salbuespena da: sei edo zazpi aldiz ikusi dut.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Beti esan ohi dut Kubara joango naizela Fidelen hiletara. Niretzat oso garrantzitsua da historia aldetik, “lo máximo”.

Aitortu dezakezun bizio bat. Txokolata, eta batez ere, Nutella.

Oporretara joateko lekurik aproposena.

Hiri handiak pilo bat gustatzen zaizkit, batez ere gauzez.

Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Traizioa.

Zer janzten duzu lo egiteko?

Udan ezer ere ez, dena soberan dago. Eroso egin behar duzu lo.

Ezin zaitezke bizi... Lagun barik. Beti zure ondoan behar dituzu.

Inoiz erosi duzun gauzarik bitxiena.

Orain dela lau urte, Georgian, panpina-gerrillaria erosi nuen, lehegailuz beteta, fusil batez... Eta gainera umeentzako zen!

Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean?

Guztiok bizi garena gustura eta libre.

Ohitura txarren bat... Azkar ibiltzea autoan.

...Eta sineskeriaren bat.

Partidu bat daukadanean, beti ateratzen naiz azkena aldagelatik.

Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea?

Behi batean. Arazorik ez daukatela emoten du, beti etzanda eta patxadatsu.

Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa?

Txikitan eta gaztetan, etxera itzultzen nintzela zapata barik.

Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz?

Iaz. Arazo pilo bat izan genituen etxe berriagaz, eta dena pilatu zitzaidan.

Zure azken erokeria.

Arrankudiagako ikastolako ume guztiakaz farol batera igotzea. m

LABURREAN— Geneetan darama. Aitonak, aitak eta anaiak ere epaile beharretan jardun zuten. Espainiako futbol ligaren lehenengo mailako arbitrorik onenetarikoa dugu, eta partidu handietan eskarmentua dauka. Diotenez, bere nortasunagatik (ez ei da kikitzen) eta jokalaria daukan elkarrizketarako gaitasunagatik nabarmentzen da. Baina Eduardo Iturralde González-ek (Bilbo, 1967) ez die jaramon askorik egiten laudorioei: “Niretzat garrantzitsuagoa da jokalarientzat zein entrenatzaileentzat arbitrorik onena izan naizela azken sei urteotan”. 27 urteagaz egin zuen debuta lehenengo mailan; bederatzigarren denboraldia bete du, beraz, azken hondarrean dagoen 2003-2004 honetan. Eta guztira 150 partidutan izan dugu arbitro. Eduardok dentistentzat egiten du behar lanegunetan, Arrankudiagan dauka bizilekua, eta alabatxo biren aita dugu.

**Ipar Uribeko
bertsolari
txapelketa
2004**



FINALA

Bertsolari hauetatik 8 sailkatuak

**Ortzi
Garitano**

**Josu
Landeta**

**Miren
Ibarluzea**

**Jagoba
Pereda**

**Ekaitz
Larrazabal**

**Joanes
Igeregi**

**Gabi
Basañez**

**Aitzol
de Castro**

**Iker
Gangoiti**

**Beñat
Vidal**

**Alberto
de Abajo**

**Xabier
Paya**

**Peio
Etxebarria**

**Unai
Angulo**

**O
X
F
E
G**

maiatzak

22

ZAPATUA

**19:00etan Areetako
Andres Isasi musika-eskolan**

antolatzailea



babesleak



bbk



Getxoko
Udala

laguntzaileak

